

TRANTSIZIO EKOSOZIALERA KO BAZTAN- BIDASOAREN DIAGNOSTIKOA EKONOMIA SOZIAL ETA ERALDATZAILEAREN IKUSPEGITIK

Mendi Zubieta Iturria

2026 ©



Esker onak

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiet lan honetan parte hartu duten pertsona guztiei. Elkarrizketatuei, haien denbora, prestutasuna eta ekarpenak ezinbestekoak izan direlako Baztan-Bidasoako errealitatea modu kokatuagoan ulertzeko eta ikerketa hau garatzeko. Cederna-Garalurri eta Bortzirietako zein Baztango berdintasun-teknikariei, eskualdeari buruzko informazioa, dokumentazioa eta ezagutza partekatzeagatik; haien ekarpenik gabe, lan honetan jasotako hainbat atal ezin izango lirateke modu berean landu. BDS Koopeko lankide guztiei, lan honen garapenean emandako babesagatik eta partekatutako ikaskuntzagatik. Nahiz eta ekarpen hori beti modu zuzenean agertu ez, haiekin izandako harremanek eta elkarrizketek eragin nabarmena izan dute lan honen ikuspegian.

Bereziki eskertu nahiko nioke Dornaku Lantzi, bere gomendioengatik, ezagutzagatik eta ikerketan bidelagun izateagatik; haren ekarpenik gabe ikerketa hau ez litzateke modu berean posible izango. Jarraian, nire esker ona adierazi nahi diot Mirene Begiristaini, lan honen tutore izateagatik eta prozesu osoan zehar emandako orientazioagatik, denboragatik eta laguntzagatik.

Azkenik, aipamen berezia egin nahi diet familiakoei eta gertukoei, prozesu luze honetan zehar emandako babesagatik eta izandako pazientziagatik.

Laburpena

Ikerketa honek Baztan-Bidasoa eskualdearen diagnostiko lurreratua egiten du, Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen (ESE) ikuspegitik, trantsizio ekosozialerako aukerak, mugak eta erronka nagusiak identifikatzeko. Horretarako, marko teorikoa, azterketa sozioekonomikoa eta tokiko eragileei egindako elkarrizketa erdi-egituratuak uztartu dira. Landa-lanaren emaitzak elkarrizketen irakurketa bateratuaren eta soziogramaren bidez sistematizatu dira, eta AMIA matrizea atal enpiriko osoaren sintesi estrategikoko gisa erabili da. Emaitzek erakusten dute lurraldean trantsizio ekosoziala eta ESEaren garapena bultzatzeko oinarriak badaudela, baina erronka nagusia oinarri horiek ikuspegi multisektorialetik, gobernantza publiko-komunitariotik eta interkooperaziotik artikulatzea dela, praktika ukigarri eta erabilgarrien bidez.

Hitz gakoak: Baztan-Bidasoa; Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea; trantsizio ekosoziala; diagnostiko lurreratua; gobernantza publiko-komunitarioa; interkooperazioa.

Resumen

Esta investigación realiza un diagnóstico situado de la comarca de Baztan-Bidasoa desde la perspectiva de la Economía Social y Transformadora (EST), con el objetivo de identificar las oportunidades, límites y principales retos para la transición ecosocial. Para ello, se han articulado el marco teórico, el análisis socioeconómico y entrevistas semiestructuradas realizadas a agentes locales. Los resultados del trabajo de campo se han sistematizado mediante una lectura integrada de las entrevistas y un sociograma, mientras que la matriz DAFO se ha utilizado como síntesis estratégica del conjunto del apartado empírico. Los resultados muestran que en el territorio existen bases para impulsar la transición ecosocial y el desarrollo de la EST, pero que el principal reto consiste en articular dichas bases desde una perspectiva multisectorial, de gobernanza público-comunitaria y de intercooperación, mediante prácticas tangibles y útiles.

Palabras clave: Baztan-Bidasoa; Economía Social y Transformadora; transición ecosocial; diagnóstico situado; gobernanza público-comunitaria; intercooperación.

Abstract

This research develops a situated diagnosis of the Baztan-Bidasoa region from the perspective of the Social and Transformative Economy (STE), with the aim of identifying the opportunities, limitations and main challenges for an ecosocial transition. To this end, the theoretical framework, the socioeconomic analysis and semi-structured interviews with local actors have been combined. The results of the fieldwork have been systematized through an integrated reading of the interviews and a sociogram, while the SWOT matrix has been used as a strategic synthesis of the empirical section. The results show that territory has foundations for promoting the ecosocial transition and the development of the STE, but that the main challenge lies in articulating these foundations through a multisectoral perspective, public-community governance and intercooperation, by means of tangible and useful practices.

Keywords: Baztan-Bidasoa; Social and Transformative Economy; ecosocial transition; situated diagnosis; public-community governance; intercooperation.



01 Sarrera

- 1.1 Testuinguru eta motibazioa
- 1.2 Helburuak
- 1.3 Metodologia eta egitura

7

8

8

9

02 Marko teorikoa

- 2.1 Krisi multidimentsionala
 - 2.1.1 Krisiaren lurreraketa
 - 2.1.2 Energia-krisia
 - 2.1.3 Elikadura krisia
 - 2.1.4 Bizitzaren krisia
 - 2.1.5 Zaintza-krisia
 - 2.1.6 Trantsizio ekosoziala
- 2.2 Ekofeminismotik ekarpena
 - 2.2.1 Ekofeminismoa Euskal Herrian
- 2.3 Ekonomia Sozial Eraldatzailearen ikuspegia eta ekarpena
- 2.4 Alternatibak eraikitzen
 - 2.4.1 Lurralde-garapen eraldatzailea

10

11

12

12

13

14

15

15

17

18

19

21

21

03 Atal enpirikoa: Ekonomia Sozial Eraldatzailearen

diagnostiko lurreratua Baztan-Bidasoan

- 3.1. Kokapen geografikoa eta egitura funtzionala
- 3.2. Azterketa sozioekonomikoari hurbilpena Baztan-Bidasoan
 - 3.2.1 Azterketa demografikoa
 - 3.2.2 Bizitza duinerako errenta baldintzak
 - 3.2.3 Lan-merkatua eta ehun-ekonomikoa
 - 3.2.4 Zaintza eta erreprodukzio soziala
 - 3.2.5 Energiari buruzko lau pintza
 - 3.2.6 Elikadura-sistema eta lurraren erabilera
- 3.3 Azterketa sozioekonomikoaren irakurketa eta sintesia
- 3.4 Landa-lanaren prozesua, helburuak eta metodologia.

23

24

27

27

30

31

37

40

42

45

48



3.5 Landa-lanaren gauzatzea: Elkarrizketa fasearen emaitzak	52
3.5.1 Elkarrizketen emaitza bateratua	52
3.5.2 Elkarrizketen emaitzen irakurketa	55
3.5.3 Ekosistema eraldatzailearen argazkia: Soziograma	56
3.5.4 Soziogramaren irakurketa	58
3.6 Atal enpirikoaren hausnarketa integrala: Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahulguneak (AMIA) Baztan-Bidasoan	58
04 Ondorioak	61
05 Adimen artifizialaren erabilerari buruzko adierazpena	64
06 Bibliografia	66
07 Eranskinak	70

Taulen aurkibidea

Taula 1: Trantsizio ekosozialerako oinarri eta logika aldaketak	16
Taula 2: Baztan-Bidasoako antolaketa (2026)	25
Taula 3: Hiri nagusiekiko distantzia kilometrotan (2026)	26
Taula 4: Lan lekua, bizilekuaren, probintziaren eta erkidegoaren arabera (2021)	33
Taula 5: Bortzirietako zaintza azpiegiturak	38
Taula 6: Malerrekako zaintza azpiegiturak	38
Taula 7: Baztango zaintza azpiegiturak	39
Taula 8: Azterketa sozioekonomikoaren irakurketa eta sintesia	45
Taula 9: Elkarrizketatuen identifikazio taula	49
Taula 10: Ekonomia sozial eta eraldatzailearen AMIA	59

Irudien aurkibidea

Irudia 1: ESaren paradigmatik ESEko paradigmara	20
Irudia 2: Baztan-Bidasoako mapa (2026)	24
Irudia 3: Nafarroako soldata arrakala eskualdeka, ezaugarrien arabera (2023)	32
Irudia 4: Landa-lanaren faseak	48
Irudia 5: Baztan-Bidasoako ESEko ekosistemaren soziograma	57

Grafikoen aurkibidea

Grafikoa 1: Baztan-Bidasoako biztanleriaren bilakaera (1998-2025)	27
Grafikoa 2: Migrazio saldoak, hazkunde begetatiboa eta hazkunde naturala Baztan-Bidasoan (1999-2025)	28
Grafikoa 3: Baztan-Bidasoako piramide demografikoa (2025)	28
Grafikoa 4: Baztan-Bidasoako adin egitura (2025)	29
Grafikoa 5: Baztan-Bidasoako jaiotzen eta heriotzen bilakaera (2008-2024)	29
Grafikoa 6: Pertsonako batezbesteko errenta (2023)	30
Grafikoa 7: Langabezia tasaren bilakaera (2011-2024)	31
Grafikoa 8: Baztan-Bidasoako langabezia tasa sexuaren eta adinaren arabera (2026)	31
Grafikoa 9: Lanaldi mota, sexuaren arabera, Baztan-Bidasoan (2025)	33
Grafikoa 10: Enpresa kopuruaren bilakaera (2011-2025)	34
Grafikoa 11: Baztan-Bidasoako enpresen tamaina, soldatapeko langile kopuruaren arabera (2025)	35
Grafikoa 12: Baztan-Bidasoako enpresak forma juridikoaren arabera (2025)	35
Grafikoa 13: Sektoreen pisu erlatiboa, Gizarte Segurantzari afiliatutako pertsona kopuruaren arabera (2026)	36
Grafikoa 14: Mendekotasun tasa, adinaren eta bailararen arabera (2024)	37
Grafikoa 15: Nafarroako energia kontsumoaren bilakaera (milioi kWh) (2009-2025)	41
Grafikoa 16: Lurzoruaren erabileraren bilakaera Nafarroako ipar-mendebaldean (2007-2025)	42
Grafikoa 17: Baztan-Bidasoako ekoizpen proiektuak OTE-aren arabera (2025)	43
Grafikoa 18: Baztan-Bidasoako ekoizpen proiektuen profesionaltasun maila, OTE-aren arabera (2025)	43

01

Sarrera





1.1 Testuinguru eta motibazioa

Gaur egungo testuingurua, krisi multidimentsional batek markatzen du: krisi ekonomikoa, soziala, ekologikoa eta zaintzaren krisia, barne hartzen dituen besteak beste. Krisi horiek elkarri lotuta agertzen dira, sistema ekonomiko hegemonikoaren mugak eta arazo estrukturalak agerian utziz. Egilearen interes pertsonal eta kezka sozialetik abiatuta, Ekonomia Sozial Eraldatzaileak (ESE) krisi horiei aurre egiteko alternatiba gisa duen potentzialak, eta bereziki ikuspegi ekofeministatik egiten

diren ekarpenek, ikerketa honen motibazio nagusia osatzen dute.

Ikerketa hau BDS Koop Eraldaketa Fabrikaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen elkarlanean garatzen da. Horrela, egilearen bizilekua den Baztan-Bidasoa eskualdearen diagnostiko lurreratua egin nahi da, ESEaren ikuspegitik lurraldearen egoera hobeto ulertzeko.

1.2 Helburuak

Ikerketa honen helburu nagusia Baztan-Bidasoa eskualdeko diagnostiko lurreratua egitea da, ESEaren ikuspegitik, trantsizio ekosozialerako lurraldean dauden aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahulguneak identifikatzeko.

Helburu nagusi horri erantzuteko bidean, beste helburu espezifiko batzuk ere zehazten dira, hala nola:

- Ekofeminismoaren eta ESEaren ekarpenetatik abiatuta, Baztan-Bidasoako errealitatea interpretatzeko marko teorikoa osatzea.
- Lurraldearen bizigarritasuna baldintzatzen duten egiturazko faktore nagusiak identifikatzea.
- Ekosistema eraldatzaileko eragileak eta haien arteko harremanak identifikatzea.
- Tokiko eragileen ikuspegia, ezagutza eta iritziak jasotzea.

- Lurraldean eraldaketa artikulatzeko aukera edo bide posibleak baloratzea.

- AMIA bidez, Baztan-Bidasoan trantsizio ekosoziala eta ESEaren garapena baldintzatzen duten aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahulguneak sistematizatzea.

Aurretik aipatutako ikerketa-helburuez gain, lan honen bidez Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Graduan garatu beharreko hainbat gaitasun sendotu eta praktikan jarri nahi dira. Horien artean hiru gaitasun jorratuko dira bereziki:

- Informazio akademiko eta estatistikoaren bilaketa, hautaketa eta kudeaketa egitea.
- Arrazoiketa eta ikuspegi kritikoa lantzea.
- Informazioa modu argi eta egituratua komunikatzeko trebetasuna garatzea.



02

Marko teorikoa



2.1 Krisi multidimentsionala

Amnistia Internazionalak (2026) argitaratutako azken txostenaren arabera, mundua krisi global anitzetan murgilduta dago: klima-krisia, krisi ekonomikoa, krisi humanitarioa eta abar. Mende amaierarako 3 °C-ko berotze bidean gaude, baita onartutako politikak beteko balira ere. Klima-aldaketaren ondorioz (lehorteak, urakanak, bero-boladak, suteak, uholdeak...), elikadura-segurtasunik eza, desplazamendu behartuak eta etxebizitzaren zein bizimoduaren suntsipen azkarra ematen ari dira, diru-sarrera maila guztietako herrialdeetan.

Ondorio hauek klima-aldaketan gutxien lagundu dutenek pairatzen dituzte. IPCCk (2023) argitaratutako azken txostenaren arabera, munduko %10 aberatsenek berotegi-gasen isurketen %34-%45 sortzen dute, gainerako %50 pobreenek %13-%15 sortzen duten bitartean. Bereziki azpimarratzekoa da azken urteetan klima-aldaketaren eta klima-aldaketa ez diren beste faktore batzuen ondorioz, desberdintasun sozialen gorakada nabarmena eman dela.

Honi krisi ekonomikoa gehitu behar zaio: zor publikoaren eta inflazioaren igoera, eta laguntzen murrizketa. Ondorioz, herrialdeetako eskubide sozialak (osasuna, hezkuntza eta babesak) murriztu dira. Aldi berean, desberdintasunen eta diskriminazioaren hazkundera ikusi daiteke; hala nola, arrazakeriaren gorakada, emakumeen aurkako indarkeria, LGTBI pertsonen eskubideen aurkako erasoak edota kolonialismoaren ondoriozko desberdintasunak (Amnistia Internacional, 2026, 1-26, 200-203 orr.). Gainera, %10 aberatsenen eta gainerako biztanleriaren diru-sarreraren arteko harremana 108.765 eta 1 artekoa da; gutxi gorabehera, Erromatar Inperioan senatari baten eta esklabo baten arteko botere materialaren ezberdintasunarekin bat egiten duena (Streeck, 2016). Azken datu bat gehitzearren, Nazio Batuen Ingurumen Programako webgunean argitaratzen denez, 783 milioi pertsonak gosea

pairatzen dute, elikagaien %19 (931 tona urteko) bota eta xahutzen den bitartean.

Krisi anitzeko multzo honetan, azpimarratzekoa da mundu mailako erakundeek egoera hau gelditzeko eginiko ahalmen urriak. Azken batean, 2030. urterako denbora gutxi falta den honetan, Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) arloan aurrerapen eza ikusi daiteke: helburuen %35ean soilik eman dira aurrerapenak, %48an geldialdia dago, eta are kezkarriagoa dena, helburuen %18k atzerapausoak jasan ditu hasierako balioekin alderatuta (Amnistia Internacional, 2026 1-26, 200-203 orr.).

Zentzu honetan, gero eta gehiago dira krisi multidimentsionalak (krisi ekologikoa, erreproduktzio sozialaren krisia eta desberdintasunen areagotzea) hitz egiten duten autoreen zerrenda; baita krisi ekosozialaren garrantzia onartzen duten instituzioena ere. Horrela, sistema beraren barnetik ere bidegurutze historiko baten onarpena eman da: metatze-ereduaren eta planetaren muga biofisiko eta sozialen arteko bateraezintasuna (Herrero, 2013).



2.1.1 Krisiaren lurreraketa

Arazoa ez dago gutaz deskonektatutako mundu batean; aitzitik, munduko edozein tokitan ikus daiteke, baita gurean ere. Estatu mailan, klima-aldaketaren ondorioak inoizko handienak dira. Batez besteko tenperatura 1991-2020 aldikoa baina 2,1 °C handiagoa da. Muturreko klima-gertaerak, Valentzian eman den Dana fenomenotik hasita (238 pertsonen heriotza eragin zuena), inoizko baso-suteen urterik txarrenera doaz (392.183 hektarearen erretzearekin). Bitartean, gobernuek prebentzio eta kudeaketari buruzko konpromisoak betetzeko zailtasunak erakusten dituzte. Aldi berean, urtarritetik irailera 19.347 etxegabetze eman dira, %90 baino gehiago arrazoi ekonomikoengatik (Amnistia Internacional, 2026,1-26 or., 200-203 or.).

2.1.2 Energia-krisia

Prats, Herrero eta Torregok (2017) aipatzen duten bezala, krisiaz hitz egiterakoan bereziki garrantzitsua da energiaren auziari eustea. Alde batetik, egungo eredu sozioekonomikoa energia-ahalmen handiko erregai ugari eta merkeetan oinarritu da, batez ere erregai fosiletan. Gaur egun, baldintza hauen aldaketa-prozesuan gaude. Egungo joera jarraitzeak, 2035erako erregai fosilen eskariaren %40ko hazkundea ekarriko luke, 2008. urtearekin konparatuz. Bestalde, ikerketa zientifikoek “petrolioaren tontorra” (peak oil) izenez ezagutzen den fenomenoaz ohartarazten dute (baita gas naturalaren eta ikatzaren kasuan ere). Erregai hauek mugatuak direla kontuan hartuta, hauen erauzketak geldialdi sakona jasango duela edo jasaten ari dela ohartarazten dute. Petrolio-hobi berrien aurkikuntzak eskariaren bilakaerari erantzuteko zailtasunak erakusten ditu, herrialde askok ekoizpenaren gailurra ukitu baitute dagoeneko, gainerako hobien esplotazioak berriz, izugarritzko inbertsioak eskatzen dituen bitartean. Honek, energia-eskaria eta eskaintzaren arteko bereizketa ekartzen du; prezioen gorakadaz gain, energia-hornikuntzaren segurtasunari buruzko arazoak aurreikusten baitira, erregai fosilen etorkizunari

2025eko ekainean Nafarroako hainbat eremu tentsiopeko etxebizitza merkatu eremuetan barneratu ziren; hauen artean Baztan, etxebizitzaren prezioan %137ko hazkundea jasan duena (Nafarroako Gobernua, 2025). Bestalde, Nafarroako biztanleriaren %21 pobrezia-arriskuan dago, datu hauek sexuaren arabera, nazionalitatearen arabera eta adinaren arabera aldatzen direlarik (Nafarroako Gobernua, 2023). Zaintza-lanen banaketak ere desorekatua izaten jarraitzen du: zaintza-lanak okupazio nagusitzat dituzten pertsonen %100 emakumeak dira, eta lan horien gehiegizko karga jasaten dutenen %70-%83 ere emakumeak dira (Nafarroako Berdintasun Institutua, 2020), beste hainbat adierazleren artean.

buruzko zalantzak gero eta ugariagoak eginez.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar energia eta klima-aldaketaren arteko lotura estua, berotegi-efektuko gasen isurketen %80 inguru erregai fosilen erabileraren ondorio baitira. Karbonizazio atmosferikoa 450 ppm¹-ko mailara iritsi da jadanik, “tope kritikoa” suposatzen duena, krisi klimatikoari aurre egiteko energiaren auziari heldzea beharrezko eginez.

Azken gai bat gehitzearren, azpimarragarria da egun energia-sektorea erakunde oligopolistikoek osatzen dutela. Erakunde hauek haien interes propioen arabera jarduten dute: inbertsioen errentagarritasunaren mantentzea, erregai fosilen erabilera denboran luzatzea, energia berriztagarrien hedapena baldintzatzea eta gizarte aktibazioa sustatzeko diskurtsoen zentsura eta deslegitimizazioa. Horren ondorio da nazioarteko erakundeek energiaren gaiari erantzuteko duten gaitasun eza.

¹PPM (parts per million): milioiko zatietan adierazitako kontzentrazio-neurria.



2.1.3 Elikadura krisia

Munduko biztanleriaren %48 landa-ingurunean bizi da (Prats et al., 2017). Aldi berean, Areskurrinaga, Begiristain eta Malagónek (2019) aipatzen duten bezala, nekazaritza gizakion oinarritzko beharra den elikaduraren hornitzaile nagusietako bat da. Hala ere, azken urteotan nekazaritza-ereduak eta haren logikek eraldaketa sakona jasan dute, bizitzaren sostengurako funtsezkoa den elikadura-sistema merkatuaren logiken eta kapital-metaketa menpe geratuz.

Eraldaketa hori hainbat prozesuren bidez gauzatu da. Lehenik eta behin, elikadura-sistema globalizatu baten sorreraz hitz egin behar da. Nekazaritza-politiken eta nazioarteko akordioen bidez, nekazaritza-produktuen merkantilizazioa eta liberalizazioa sustatu baitira. Bigarrenik, “Iraultza Berdea” deituriko prozesua dugu. Etekinak maximizatzea helburu zuen ekoizpen-eredu berria ezartzean oinarrituta, intsumo kimikoen erabilera masiboa eta monolaborantza intentsiboa hedatu baitzen. Horrela, nekazaritza tradizionaletik, erregai fosilen eta produktu kimikoen erabilera oinarritutako, nekazaritza intentsibo eta industrializatura igaro gara. Bertako elikadura-beharrak asetzea xede zuen nekazaritzatik, inportazioetara bideratutako nekazaritzara.

Ekoizpena handitu eta elikadura-segurtasunaren zenbait adierazle hobetu diren arren, eredu horrek ondorio sozial eta ekologiko nabarmenak eragin ditu: kanpo-intsumoekiko menpekotasuna areagotu da, ekoizpen-kostuak eta kreditu-beharrak handitu dira, kanpo-merkatuen menpekotasuna indartu da, bioaniztasuna murriztu da eta ingurumen-kalte esanguratsuak sortu dira. Nazioz gairik enpresa handiek elikaduraren balio-kate globalen kontrola eskuratu dute. Nekazariak lehengaien hornitzaile huts bihurtu dira, eta balio erantsiaren zati handiena kateko beste eragile batzuen esku geratzen da. Gainera, ekoizpenaren hazkundeak ez ditu gosea eta elikagaiak eskuratzeko arazoak desagerrarazi

(Areskurrinaga Mirandona et al., 2019). Gaur egun, munduan 821 milioi pertsonak desnutrizio edo malnutrizio arazoak pairatzen dituzte, eta biztanleriaren %30ak ez du elikadura egokia eskuratzeko aukerarik. Aldi berean, 1.500 milioi pertsonak obesitatea pairatzen dute, eta ekoiztutako elikagaien %20 inguru alferrik galtzen da. Gainera, nekazaritza krisi ekologikoaren eragile nagusietako bat da; lurzoruen erabilera izandako aldaketek eta petroliotik eratorritako inputen erabilera intentsiboak berotegi-efektuko gasen emisioen %29 inguru eragiten baitute (Prats et al., 2017; Santos de Oliveira, 2024).

Horrenbestez, zalantzan jar daiteke egungo nekazaritza eta elikadura-eredu hegemonikoak gizateriaren elikadura bermatzeko duen gaitasuna. Egun pairatzen dugun elikadura-krisiaren aurrean, elikadura-sistema osoaren berrantolaketa bereziki garrantzitsua da. Norabidea argia da: behin elikadura-sistema globalaren logikek tokiko lurraldeetan dituzten ondorioak ulertuta, globaletik lokalera igarotzea da pausoa. Hau da, nazioarteko merkatuen eta korporazio handien menpekotasunetik, tokiko elikadura-kateak, gertuko harremanak eta lurraldearen burujabetza indartzera pasatzea (Areskurrinaga Mirandona et al., 2019).

Zentzu horretan, agroekologia hiru alderditatik ulertzen da: zientzia gisa, elikadura-sistemen iraunkortasuna aztertzeke eta orientatzeko; nekazaritza-praktika moduan, tokiko ekosistemetara eta jakintzetara egokitutako ekoizpen ereduak garatzeko; eta mugimendu sozial gisa, elikadura-sistema globalaren logika kapitalista eta industrialari alternatibak eraikitzeke. Horrekin batera, agroekologiak hiru dimentsio nagusi lantzen ditu: dimentsio tekniko-produktiboa, soziokulturala eta politikoa. Dimentsio horien bidez, agroekologiaren helburua lurraldeen eta herrien elikadura-burujabetza eraikitzea da, tokiko elikadura-kateak indartuz. Hau da, herriek beren elikadura-sistema erabakitzeke duten eskubidea aldarrikatzen du. Bestalde, ikuspegi

feministak, elikadura-sistemaren barruan ezkutua geratzen diren zaintza-lanak, emakumeen ekarpenak eta botere-harremanak zalantzan jarritz, trantsizioa benetan bidezkoa izan dadin, agroekologiak dimentsio horiek kontuan hartu beharra direla aldarrikatzen du (Areskurrinaga Mirandona et al., 2019).

Maila praktikoan, tokiko elikadura-sistemak eta elikadura-sare alternatiboak bereziki funtsezkoak suertatzen dira. Salmenta-kanal

hutsak ez ezik, elikadura birlokalizatzeko, balio-katea demokratizatzeko eta komunitatea berreraikitzeke tresna gisa. Datuek diotenez, Mediterraneoko herrialdeetan merkaturatze-bide laburrak janari ekologikoen salmentaren %40tik gora barneratzen dute. Beraz, trantsizio agroekologikoa merkatu globalari produktu ekologikoak gehitzea ez ezik, elikadura-eskubide gisa ulertuko duen sistema lokal, demokratiko eta justua eraikitzean datza (Areskurrinaga Mirandona et al., 2019).

2.1.4 Bizitzaren krisia

Ibilbide historiko honen azken txanpan, une berezi bezain katastrofiko batera iritsi gara: inoiz baino populazio handiagoa dago eta inoizko kontsumo-mailarik handienak erregistratzen dira, planetaren muga biofisiko eta sozialak guztiz gaindituz. Egungo hazkunde, metaketa eta kontsumo-ereduak jarraitzeke, 2050erako lur planeta bezalako 2,8 beharko genituzke inpaktua barneratu ahal izateko. Horrek erakusten du ezinezkoa dela egungo hazkunde, kontsumo eta metaketa eredu mantentzea. Are gutxiago guztioak familia aberatsenen bizi eta kontsumo maila bera izango dugula pentsatzea, honek esan nahiko luke 2,8 planeta ez 4,5 planeta beharko genituzkeela. Horregatik, argi dago kapital-metaketa mugagabearen oinarritutako eredu sozioekonomikoa desberdintasun sozialak mantentzen bakarrik eraiki daitekeela (Prats et al., 2017).

Egungo sistema hegemonikoa, merkatuaren zentralitatean, pribatizazioan eta finantziarizazioan oinarritzen da. Kapital-metaketa eta irabazien maximizazio sistemaren zentro bilakatuz, merkatuak antolaketa eta erabakien erdigune bilakatzen dira, ekonomia beraren zentzua eta norabidea hauen logiken baitan egituratuz. Hori gutxi ez balitz, gizartea eta haren harremanak ere merkatuen mendeko suertatzen dira. Errealitatearen azterketa kalkulu ekonomikoetara murriztu da, kapitala guztiaren neurria eta balioa definitzeko bide bakar bezala aurkeztuz. Ildo honetatik, lanaren kontzeptua soldatapeko lanera murrizten da,

lan produktibo bakarra kapitala metatzeko balio duen hori bezala definituz; natura baliabide soil bihurtzen da, inork sortu ez duena pribatizatu eta gainontzekoen erabileratik at botaz; eta balioa, truke-balioaren arabera ezartzen da, hau da merkatuak ezarritako hura eta ez bere erabilera edo beharrak asetzeko duen gaitasunaren arabera (Olatukoop, 2024).

Perezek (2023) ondorengoa dio: “Nekazaritzako toxikoekin lantzea errentagarriagoa bada, lurra pozoitu arren, horixe egiten da. Elikagaiak esportatzeak mozkin handiagoa sortzen badu, bertako biztanleak gosez egon arren, janari hori kanpoan salduko da”. Egoera horiek erabat ulertezinak dira bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegitik, baina guztiz arrazoizkoak dirudite kapital-pilaketaren logikatik. Horrela, “kapitala eta bizitzaren arteko gatazka ondorioztatzen da, non bizitza bera ere kapital-metaketaaren eskuetan erortzen den”. Ondorioz, kapitalismoan, bizitza ez da helburua, ustiatu daitekeen baliabidea baizik.

Baina, kapital-bizitza gatazkaz hitz egiterakoan kontuan hartu behar da nahiz eta gatazka guztion bizitzekin izan, honek ez digula guztioi modu berean eragiten. Kapitala ez da neutrala; aitzitik hierarkia eta botere-harremanak definitzen ditu. Merkatuak subjektu neoliberal deritzonaren arabera egituratzen dira, BBVAH izenez ezagutzen dena da: zuria/blanco,

burgesa/burges, gizonezkoa/varon, asfaltokoa/heldua/asfaltado/adulto eta heterosexuala/heterosexual, funtzionaltasun normatiboa duena, eta abar. Horrela, definizio horretatik zenbat eta gehiago urrundu, are eta gehiago jartzen da bizitza kapitalaren eskuetara: indarkeria, desjabetze eta ikusezintasun gero eta handiagoa eta pribilegioak erabiltzeko aukera txikiagoa. Horregatik, indarkeriaren adar

anitzak kontuan hartuta, azpimarratu beharra da sistema ez dela soilik kapitalista; heteropatriarkala, arrazista, kolonialista eta kapazitista baizik. Gainera, subjektu neoliberal hau autosufizientzia eta independentziaren fikzioan eraikitzen da, bizitzaren materialtasuna eta ekodependentzia eta interdependentzia harremanak ezkatatuz (Pérez, 2023).

2.1.5 Zaintza-krisia

Egun, planetaren muga biofisikoak alde batera uzteak eta gainditzeak krisi ekologiko sakona ekarri duen bezala, erreprodukzio sozialerako lanen ikusezintasuna eta gainkargak zaintzaren krisia ekarri dute. Erreprodukzio soziala bizitza humanoaren sostengua eta jarraipena bermatzeko beharrezkoak diren jarduera material zein emozionalen multzoa da. Jarduera zabal eta ezberdinak barne hartzen ditu, elikaduratik zaintzaraino.

Emakumezkoek bizitzaren sostenguaren karga osoa etxetik, merkatutik kanpo, hartzen zuten eredu bidegabe baina “funtzionalaren” hausturak eraman duen prozesuari deritzo zaintza krisia. Prozesu hori hainbat faktoreren baitan garatu da: emakumezkoen itxaropenen aldaketan, biztanleriaren zahartze prozesuak ekarritako zaintza-beharren handitzean eta bizitzaren prekarizazioan. Azken honetan,

urbanizazioak eta merkatuak inposatutako erritmo eta ordutegiak eta komunitate eta sare sozialen ahultzea azpimarratuz. Egoera horren aurrean, zaintzaren berrantolaketa kolektibo eta ekitatiboa eman beharrean, zaintza-kate globaletan eta erdi-soluzio merkantiletan oinarritu da. Non berriro ere pribatutik, norberaren baliabideen arabera; feminizazio eta naturalizaziotik, amatasun anitzak sortuz eta aitatasuna ez mugituz; eta desberdintasunetik, merkatuak berak ezarritako hierarkiari jarraituz, hala nola, klasea edo migrazio-estatusa, berregituratu den (Herrero, 2016; Pérez, 2014).

Aurreko guztiagatik, ekonomia feministak gizakien interdependentzia ekonomiaren aztergai nagusien barruan txertatzea aldarrikatzen du, plano ikusezin batean geratu ez dadin (Herrero, 2020).

2.1.6 Trantsizio ekosoziala

Beraz, argi gelditzen da ekonomia-eredu justu eta jasangarri baterantz birmoldatzea beharrezkoa dela. Baina zein norabidetan? Trantsizio ekonomikoak muga sozialak eta ekologikoak barneratu behar ditu, bizitzaren erreprodukzioa espazio seguru batean garatu ahal izateko. Trantsizioa mozkin monetarioetan eta hazkundean oinarritutako sistematik, jasangarritasunean, berdintasunean, ekitatean eta ongizate kolektiboan oinarritutako sistema

batera igarotzea izango da, bizitza beraren jasangarritasuna bermatzeko. Horrek logika sozioekonomikoen aldaketa sakona eskatzen du.

Prats, Herrero eta Torregok (2017) trantsizio ekosozialaren oinarriak eta eskatzen dituen logika-aldaketak definitzen dituzte, ondorengo taulan laburbilduak aurkitzen direnak:



Taula 1: Trantsizio ekosozialerako oinarri eta logika aldaketak

TRANSIZIO EKOSOZIALA	
Oinarriak	Eskatzen dituen logika aldaketak
1. Jasangarritasun ekologikoa: Ekonomiak naturaren mugak errespetatu behar ditu, hala nola, energia berriztagarrien erabileran, materialen zikloen itxieran, zuhurtzia-printzipioaren aplikazioan eta energia nahikotasunean zein birbanaketan oinarrituta. 2. Ongizatea: Oinarrizko beharren bidez, gizartearen ongizatea eta bizitza duina bermatu behar dira. Hala nola, elikadura, etxebizitza, lan duina eta zerbitzu publiko unibertsalak erdigune izanik. 3. Justizia soziala eta berdintasuna: Desberdintasunen murrizketan, aberastasunaren eta lanaren birbanaketan, zaintza-lanen eta emakumeen paperaren aitortzan eta etorkizuneko belaunaldiari utziko zaien munduaren babesean oinarritua. 4. Demokrazia ekonomikoa: Sektore estrategikoen kontrol demokratikoan, ongizate orokorra lehenestean eta praktika demokratikoen erabileran (baita enpresetan ere) oinarritua.	1. Ekonomia autosufizientea: Oinarrizko beharrak bermatzeko, autosufizientziaren bultzatzea. Bereziki nekazaritzaren eta energiaren arloan, kontsumo arduratsu eta neurritsua bultzatu. 2. Trantsizio energetikoa: Aurrezketa, eraginkortasuna eta energia-iturri berriztagarrien erabilera bultzatu. Bereziki gehien kontsumitzen duten sektoreetan (industria, garraioa eta eraikuntza). 3. Tokiko ekonomia: Tokiko ekoizpen- eta kontsumo-sareak sustatzea, hurbiltasuna balioesten dutenak. Garraio beharrak murriztuz eta tokiko harreman sozioekonomikoak indartuz, lurralde erresilienteagoak eraikitzeko. 4. Eredu ekonomiko berria: Sistema sendoago, deszentralizatuago eta demokratikoago baten eraikitzea. Korporazioen interes pribatuetatik libre, nahikotasuna eta inpaktu ekologikoa irizpide dituenak. Horrek barne hartzen ditu: • Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa. • Industria garbia eta zirkularra. • Zerbitzu publikoak beharretara bideratzea. • Eraikuntza eta hirigintza birgaitzera bideratzea, espekulazioa eta korrupzioa saihestuz.



	5. Sektore estrategikoak: Interes kolektiborako eta gizartearen beharretarako estrategikoak diren sektoreen kualifikazio eta kontrol demokratikoa. Barne hartzen ditu: • Funtzio kulturalak dituztenak: hezkuntza eta prestakuntza. • Baliabide materialak eskaintzen dituztenak: finantzak, energia, elikadura, lurren ustiapena eta abar. • Ezagutza zientifiko eta teknikoak eskaintzen dituztenak. 6. Finantza publikoak: Babes soziala sendotu eta trantsizioak beharko dituen behar finantzarioei erantzuna emateko nahikoa, bidezkoa eta birbanatzaileagoa den finantzaketa-sistema publikoa.
--	--

Iturria: Prats, Herrero eta Torregok (2017)-tik egokitua.

Nolabaiteko laburpena eginez, beharrezkoa da sistema gizartearen beharretara begira jartzea, auzi ekologikoa barne hartuz. Horretarako,

sektore estrategikoen gestio demokratikoak eta nahikotasunaren, autosufizientziaren eta tokikotasunaren logikak erdigune izan behar dira.

2.2 Ekofeminismotik ekarpena

Giza existentziaren materialtasunean dago gakoa, hala nola, gizakia gorputz batean bizi denaren eta gorputz honek elikatu, edan, erlazionatu, eta abar behar duenaren kontzientziazat.

Bizitza, organismoen eta hauek kokatuta dauden ingurumenaren arteko elkarreragin eta truke-harremanari esker garatzen da, baita gizakion bizitza ere. Ekodependenteak gara, natura behar dugu, elikatu ahal izateko, energia lortzeko eta azken finean, bizi ahal izateko. Gainera, natura mugatua da, bere denborak ditu, bere zikloak, eta hauek ez errespetatzeak bizitza humanoa eta ez-humanoa arriskuan jartzen ditu. Egungo ekonomia-industrialak, zientzia naturalak alde batera utziz garatu dira,

horrela egungo egoeran gaude, planetaren muga biofisikoak gaindituta. Horregatik, ekonomia ekologikoak ekonomia eta naturaren arteko harremana birsortzean jartzen du fokua, ekonomiak bizi zikloen azterketa barneratu eta sistema ekonomikoaren tamaina ekosistemen gaitasunaren arabera eraiki dezan (Herrero, 2016).

Bestalde, feminismotik, giza gorputza zaugarria eta finitua dela azpimarratzen da. Honek argi uzten du pertsonak ezinbestekoa duela beste pertsona batzuen lana eta dedikazioa biziraun ahal izateko, gizakien arteko interdependentzia aitortuz. Eredu kapitalista patriarkatuaren eskutik garatu da. Patriarkatu neoliberalen erreproduzio sozialerako eta bizitzeko hain



beharrezkoak diren zaintza-lan hauek emakumeen gain jarri dira. Lehen instantzia batean emakumeen gorputzez eta haien lan-indarrez jabetuz, baina baita hauek ekoizten zutenaz eta, noski, hauen irabaziez. Zaintza-lan hauek emakumeen bizkar gainean bakarrik jartzea nahikoa ez bada, merkatuan eginiko lanen kulturizazioa eman den bitartean, lan hauek erreproduktibotzat jo dira, naturalizatuz. Horrela, sistemaren B plano batean geratu dira, ikusezin, balore gabe (Herrero, 2016).

Bereziki interesgarri eta beharrezkoa da ekologiarene eta feminismoaren arteko elkarriketa, bakoitzak bere aldetik nekez hartu

baititzake krisi multidimentsionalari eta bizitzaren krisiari aurre egiteko beharrezko gai guztiak. Garrantzitsua da ekofeminismotik, hau da, bizitza sostengatzeko beharrezkoak ditugun bi aldeak onartzetik jardutea, ekodependentziatik eta interdependentziatik, emakumeen zapalkuntza eta naturaren ustiapena elkarri lotuta baitaude. Biak logika patriarkal baten baitan gertatzen dira, non bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren baliabideak eta prozesuak gutxietsi, desbalorizatu eta menderatu egiten diren (Herrero, 2016).

2.2.1 Ekofeminismoa Euskal Herrian

Euskal Herrian ekimen kolektiboen inguruan historia nabaria da. Hala nola, ikastolak, kooperatibagintza, borroka ekologista eta feminista, eta abar. Baina kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka ikuskatzen dugun honetan, zein da gurean dugun paradigma?

Begiristainek (2021) aipatzen duen bezala, Euskal Herrian ekologismoaren eta feminismoaren arteko elkarriketa oraindik eraikuntza-prozesuan dago. Baina gero eta gehiago dira ekofeminismoaren diskurtsotik edaten duten praktiken agerpenak, bereziki agroekologiaren eta mugimendu feministaren dinamiketan egituratuak. Oraindik ez dute diskurtso bateratu edo “kosmobisio” artikulaturik osatzen, baina pixkanaka elkarlotzen ari diren esperientziak dira. Horren adibide da zaintza-lanen inguruan eginiko proposamenak bizitzaren sostengarritasunaren lerroan kokatzea; “gorputzean errota (pertsona oinarri hartuta), lurraldean errota (auzo eta herri txikietatik abiatuta) eta ikuspegi publiko-komunitarioan (bizitza zaintzeko modua kolektiboa dela ulertuta)” (Begiristain, 2021). Era berean, jardunaldi eta espazio feministetan gero eta gehiago lantzen dira muga ekologiko, sozial eta ekonomikoak, bereziki zaintza eta elikadura-burujabetzaren inguruan.

Elkarriketa eta hausnarketaz harago, baditugu gurean proiektu konkretuak, ekofeminismoaren ildotik dabilzanak. Hala nola, EAEko demokrazia patriarkalaren inguruko ikerketek despatriarkalizaziorako oinarrien eskaintza; mugimendu feministak “bizitza erdigunean” jartzeko beharra azpimarratzea, krisiari ikuspegi feminista, antineoliberal eta antikolonial batetik erantzunez; Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen (ESE) esparruan garatutako tresnek eta praktikek lanaren burujabetza, ekimen kolektiboa, bizitzaren iraunkortasuna eta lurraldearekiko lotura oinarritzat hartzea; eta agroekofeminismotik eginiko lanek landa-eremua eta feminismoa uztartzea, sistema agroindustrialak kritikatu eta desmerkantilizazioa zein elkar-laguntza sareak sustatuz. Gainera, euskararen eta identitate kolektiboaren garrantzia ere azpimarratzekoa da, ikuspegi dekolonialarekin lotuta. Honek guztiak erakusten du Euskal Herriko ekofeminismoak izaera propioa eta kokatua duela, munduko beste borroka eta erreferentziak kontuan hartzen baditu ere (ez beti behar bezainbeste), batez ere lurraldean errota praktika eraldatzaileen bidez, bizitza erdigunean jartzeko bidea eraikitzen den bitartean.

2.3 Ekonomia Sozial Eraldatzailearen ikuspegia eta ekarpena

Argi dago posibleak azken helburu bezala definitzea ez dela bizitzarako bidea, baina helburua bizitza mantendu eta aberastea bada, hau da helburu soziala, zein da bidea? Bide honetan, eraldaketa-proposamen ezberdinak barneratu dira, ekintzailatza soziala ulertzeko (Begiristain, Etxezarreta, Morandeira eta Kareaga, 2021).

Ekonomia sozialak (ES) irabazien gainetik pertsonen premiak asetzea lehenesten duten praktika multzoa dira. Praktika horien aniztasuna kontuan hartuta, definizio honen pean ekonomia sozialtzat hartuko ditugu, bai merkatura modu akritikoan egokitzen diren praktikak, bai egungo sistemari aurre egiteko helburua dutenak ere. Nahiz eta praktika hauek askotarikoak izan, badira forma juridiko batzuk mugimendu hauei estuki lotuta daudenak, irabazi mugatuak edo inexistenteak bermatzen dituztelako: kooperatibak, ekimen sozialeko elkarteak, fundazioak, gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak eta gizarteratze edo laneratze ekonomia. Mugimendu kooperatiboa historikoki lan solidarioan, elkarlaguntzan, autoerantzukizunean, berdintasunean eta ekitatean oinarritu da, aldi berean, kudeaketa demokratikoa eta eragin sozial positiboa azpimarratuz. Hala ere, kasu askotan, erakunde edo praktika ekonomiko batzuek ez dute kontraesanik ikusi ekonomia kapitalistan integratzearekin, eta sistema hori osatzera batu dira, honek sortzen dituen arazo batzuk konponduz (Ekonomia Sozial Kapitalistak).


Gainera, askotan praktika errealean eta printzipio horien arteko distantzia agerian geratu da, gizarte-erlaketaren falta nabarmenduz. Horregatik, ESren birpentsaketatik Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESE) sortu da, harreman ekonomikoak (produkzioa, banaketa, kontsumoa eta finantzaketa) birpentsatzeko asmoz. ESri hiru ekarpen nagusi egiten dizkio: forma juridikotik haratago, erakundeen izaera eta praktikei erreparatzea; dimentsio politikoaren indartzea, ekonomia eta gizarte eraldaketaren prisma zabalagoa ezarri; eta ikuspegi teorikoaren zabaltzea, ekonomia anitz eta plural baten barruan.

Azken olatu batean, mugimendu kooperatibistaren zati batek ekonomia kapitalistaren alternatiba izateari uko egin diolaren kritikatik abiatuta, ESE paradigma garatu da. Paradigma hori batez ere praktika zehatzetatik eraiki da, eta bereziki kooperatibismo autogestionariotik.

Ekonomia eraldatzaileak ekonomia kritiko, feminista, ekologiko eta dekolonialetan oinarritzen diren ereduak dira, eta ekonomia kapitalistatik urruntzen diren praktika sozioekonomikoen multzoa osatzen dute. Ildo horretan, ESEak ekonomia sozial eta solidarioaren parte dira, baina eraldaketa sozialerako bokazioa eta praktika emantzipatzaileak gehituta. Kapital-metaketa eta enpresa-irabazien maximizazioa baztertuz, bizitzaren mantenua eta aberastea jartzen dute helburu nagusi gisa. Beraz, ESEek, alde batetik, pertsonen beharrak asetzea eta, bestetik, indarrean dagoen sistema ekonomiko eta soziala eraldatzea dute helburu (Begiristain et al., 2021; Olatukoop, 2024).



Irudia 1: ESaren paradigmatic ESEko paradigmara



Iturria: Begiristain et al. (2021).

Eraldaketarako bide eta alternatibak eraikitzearen baitan, funtsezko kontzeptu batzuen berrirakurketa eta berregituraketa proposatzen dira. Eraldaketak mendeko lanari, jabetza pribatuari eta merkatuari edo truke balioari alternatibak bilatzea, edo gutxienez bizitzarako funtsezkoak diren ondasunen desmerkantilitzazioa beharrezkoa delaren konbikzioetik egiten dira (Olatukoop, 2024):

- Lana: Lana kapitalaren erreproduktzioarako bide izatetik, bizitza komuna sortzen eta sostengatzen duten jarduera multzo bezala definitzen da. Lan autogestionarioa erdigunean jartzen da, lan-prozesu komun batean, menderaketa eta ustiapen sistematikoa alde batera utziz eta noski lan guztiei erantzunez, soldatapekoak izan edo ez.
- Jabetza: Jabetza pribatuaren eta banaketa zein pilaketa printzipioen alternatiba gisa, erabilera modu edo jabetza kolektibo eta komunitarioan, eta kudeaketa demokratikoan oinarritzen da.
- Balioa: Erabilera-balioaren araberakoa edo gutxienez truke-balioa erabilera balioaren menpeko izatea, ez merkatuak ezarritakoa.

Ekintzailtza sozial kooperatiborako adierazle-sistemaren baitan, ESEko proiektuek ondorengo irizpideak hartu behar dituzte kontuan (Begiristain et al. 2021):

- Lanaren burujabetza: Lana pertsona guztiek

ekonomian eta komunitatean parte hartzeko tresna gisa ulertuta. Lan duinerako eskubidea bermatu behar da, autokudeaketan eta parte-hartze integral, demokratiko eta inklusiboan oinarrituta.

- Ekimen kolektiboa: Erabaki-egitura demokratikoan, elkartasunean, gardentasunean, bidezko banaketan eta barne-prestakuntzan oinarrituta.
- Lurraldea eta eraldaketa soziala: Ingurumenarekiko konpromisoa eta eraldaketa soziala xede izan behar dira. Eraginak politikoa, interkooperatiboa eta banatua (kooperatiba sareetan antolatua) izan behar du, kultura eta ondare komuna erdigunean jarritz.
- Bizitza erdigunean: Ekonomia ekofeminista oinarritzat hartuta, natura-baliabideekiko harreman arduratsuan, merkaturatze- eta banaketa-politiken eraldaketan (isurketak murrizteko kanal laburrak eta zuzenak lehenetsiz eta kanalen eraginkortasuna bermatuz), produkzio-zikloen itxieran eta zaintza-lanen lanketan lurreratzen da.
- Iraunkortasun ekonomikoa: Autonomia eta bideragarritasun finantzarioa bermatuko dituen aniztasun ekonomikoa landuko da (hainbat jatorritako baliabideak). Hori lortutakoan, proiektuaren egonkortasun ekonomikoa (proiektuaren biziraupen ekonomikoa eta posizionamendu estrategikoa, eta elkarrekikotasun ekonomikoa (borondatezko harremanen indartzea) lortuko dira.

2.4 Alternatibak eraikitzen

Argi geratzen da kapitalismoak ez duela inoiz ekoizpen demokratiko bat izango, inplizituki botere-harremanetan egituratzen baita. Baina nola lortu gizartea beste eredu batzuetara egokitu eta lotzea, lehiaren eta merkatuaren mehatxutik at? Horretarako, prozesu ekonomikoaren eraldaketa beharrezkoa da, prozesu ekonomiko osoa barneratzen duena: sortu, kontsumitu, banatu eta finantzatzeko beste modu bat. Zirkuitu ekonomiko hori edo

merkatu sozial hori eratzeak interkooperazioa eskatzen du, hau da, lurralde bateko eragile (ekoizle, banatzaile, kontsumitzaile eta aurrezle) ezberdinen masa kritikoa. Horregatik esaten da kooperatibizazioa ez dela kooperatiben barrura mugatzen. Trantsizioak helburu, aktore, eskala eta esperientzia anitzen bilduma hartu behar baitu kontuan, mugimendu eta erakunde anitzen inguruan aliantzak eraikiz (Olatukoop, 2024; Arri et al., 2020).

2.4.1 Lurralde-garapen eraldatzailea

Olatukoopek (2024) dioten bezala, ESEetatik eta ekofeminismotik abiatuta, lurraldearen ideia modu berezi batean ulertzen da: pertsonok lurralde jakin batean jaiotzen gara, bertan bizi gara eta bertan ehuntzen ditugu gure harremanak. Horregatik, eraldaketa ere tokian bertan eraiki behar da, tokiko biztanleriaren beharrak eta lurraldearen interes orokorrak erdigunean jarritz. Azken finean, helburua bizitza bera berriro kolektiboki bereganatzea da, gizartearen esparru guztietan eta komunitate osoaren mesedetan.

Ildo horretan, beharrezkoa da orain arte nagusitu den lurralde-garapen neoliberalarekin haustea. Eredu honek, lurraldea ahalduntzea baino gehiago, enpresen interesak lehenetsi ditu, lankidetzaren publiko-pribatuaren bidez (enpresaburuen irudi soziala indartuz, tokiko baliabideak merkantilizatuz eta azpiegiturak enpresen mesedetan egokituz).

Horren ordez, eredu publiko-komunitario-kooperatibo bat aurkezten da, udalaren eta tokiko erakundeen arteko lankidetzan oinarrituta. Eredu honek publikotasunetik unibertsaltasuna bermatu nahi du, komunitatetik komunitatera sareak ehunduz, eta, kooperatibismoaren bidez, eredu demokratiko, inklusibo eta bidezkoak sustatuz. Helburua tokitik eraikitako lurralde-burujabetza ekonomikoa garatzea da: herritarrek erabaki dezaten zer ekoitzi, nola ekoitzi eta nola banatu, haien beharrak asetzeko.

Horretarako, funtsezkoa da sektore estrategikoetan burujabetza lantzea. Besteak

beste (Olatukoop, 2024):

- **Energia-burujabetza:** Benetan jasangarriak diren energia berriztagarriak erabiliz eta energiaren kontrol kolektiboa bermatuz.
- **Elikadura-burujabetza:** Bizitzaren erreprodukzioarako beharrezkoak diren baliabideak tokiko baliabideekin eta modu autogestionatuan ekoiztuz.
- **Burujabetza industrial eta teknologikoa:** Ekoizpen-ereduak eraldatuz eta lurraldean eskuragarri dauden baliabide iraunkor eta birziklagarrietan oinarrituta, erresilientzia eta iraunkortasuna sustatuz.

Aitzitik, aipatu bezala, eraldaketak subjektu eraldatzaileen beharra du, hau da, ekosistema eraldatzaile baten beharra. Aldi berean, hauek izango dira lankidetzaren harremanak sortuko dituztenak, bai udalekin, gobernuekin edo ildo berean lanean dauden beste eragile batzuekin, lurraldetik eta lurraldearentzat. Tresna kooperatibo hauen sorrera ez da erraza, eta malgutasunez eta modu ezberdinetan lan egitea eskatzen du.

ESEetatik bost esku-hartze eredu aurkezten dira aukera anitz horiek definitzeko unean (Olatukoop, 2024):

- **ESE sustapen-bulegoak:** ESE proiektu berrientzat erreferentziazko espazioak dira, non laguntza edo espazioaren erabilera baliatu dezaketen.

- ESE subjektu eraldatzaileak: Tokian tokiko ESEaren hedapena dinamizatzen duten proiektuei laguntza eskaintzen dieten proiektu edo pertsonak.
- ESE lurralde-interkooperazio sareak: Lurralde bateko ESEren baitako hainbat proiektu biltzen dituzten sareak dira. Aldi berean, erreferentziazko espazioak ere bilakatzen direnak, eta haien helburuak ESEren garapena eta proiektuen arteko lankidetzak dira.

- ESE sektore-interkooperazio sareak: Aurrekoaren izaera bera dute, baina sektore jakin bati lotuta.

- Herri-kooperatibak: Egitura sozioekonomiko publikoak dira, lurralde batek behar edo nahi dituen proiektuak sustatu eta zerbitzuak emateko. Modu ezberdinetan eta forma juridiko jakinik gabe, tokiko garapen burujabea garatzeko tresnak dira.

2.4.1.1 Lurralde sistema kooperatiboa eraldaketa agente gisa

Orain arte esan bezala, trantsizioek eta eraldaketek ez dute forma zehatzik; aitzitik, askotariko praktiketan egituratu daitezke. Ildo horretan, aipatutako eredu ezberdinen baitan, ESEko lurralde-interkooperazio sareen figura bereziki interesgarria iruditzen zaigu lurraldearen eraldaketarako. Izan ere, sistema horiek (polo kooperatibo/ lurralde sistema kooperatibo ere deituak) bi mailatan jarduten dute. Alde batetik, interkooperazio-ekosistemak dira: sarea osatzen duten proiektu ezberdinek, lankidetzaren bidez, elkar indartu eta osatzen dute denboran zehar. Bestalde, lurraldea artikulatzeko tresna gisa ere funtzionatzen dute, tokiko esparrutik alternatiba ekonomiko, sozial eta ekologikoak garatzea ahalbidetuz. Aldi berean, ez dira erakunde barruko parte-hartzera mugatzen; aitzitik, bestelako erakundeekin ere interkooperazio-sareak sortzen dituzte (Mencías A., 2024).

Olatukoopen (2024) baitan Euskal ekosistema eraldatzaileen mapa argitaratzen da, eragile ezberdinen mapa, batez ere Gipuzkoako lurraldean egituratzen dena. Aipatzekoa da ikerketa honen esparru geografikoan (Baztan-Bidasoa) eragile falta nabaria sumatzen dela. Hori horrela izanik ere, bada esperientzia konkreturik ere Baztan-Bidasoatik hurbil; adibidez, BDSkoop. BDSkoop Behe Bidasoan ESEen inguruan sortutako lurralde-sistema kooperatiboa da. Hamar entitatek hartzen dute parte bere barne-egituran, baina, aldi berean sare zabalago bateko parte ere bada, erakunde ezberdinekin elkarlanean, maila ezberdinetan, bai lurraldean bai estatu-mailan. Sistema


publiko-komunitarioaren baitan ulertua, lurralde-gobernantzarako tresna da. Aipatzekoak dira BDSkooppek lortutako barne zein kanpo-inpaktuak. Alde batetik, barne-inpaktuei dagokienez, interkooperazioaren bidez parte hartzen duten erakundeen sostengu eta indartzea ahalbidetu du. Hainbat espazio eta zerbitzu partekatzeko aukera eman du, hala nola azpiegiturak eta espazioak, administrazio- eta kudeaketa-zerbitzuak, formakuntza, marketina eta abar. Bestalde, kanpo-inpaktua ere badu; hala nola, zonaldean ESEren erreferentziazko espazio bihurtu da, 49 proiektu eta 76 kanpo-eragile biltzen dituen sare bat artikulatuz, eta trantsizio ekologikoa, berdintasuna eta parte-hartzea bezalako esparruetan eragina azpimarratuz (Mencías A., 2024).

BDSkooppek erakusten du lurralde-sistema kooperatiboak tresna eraginkorrak izan daitezkeela, nahiz eta muga eta erresistentziak ere agerian geratu (hala nola, diru-laguntzen mendeotasuna, lan-karga handia edo aitortza instituzional eskasa). Hala ere, sareak artikulatzeko eta proiektuak bultzatzeko duen potentziala nabarmena da, kanpoko zein barruko ekosistemen artikulatzaile gisa (Mencías A., 2024). Hori guztiagatik, aukera anitzen artean horrelako proiektuen garrantzia ezin da alde batera utzi. Baina egoera lurraldez lurralde eta tokian-tokiko aztertu eta artikulatzea garrantzitsua da, alternatiba eraikuntza honetan, leku bakoitzari hobekien egokitzen zaizkion alternatibak edo bideak eraikiz.

03

Atal enpirikoa:

Ekonomia Sozial Eraldatzailearen diagnostiko lurreratua Baztan-Bidasoan





Trantsizio ekosoziala ezin da modu abstraktuan ulertu, ezta proposatu ere. Horregatik, atal enpiriko honek atal teorikoan landutako ideiak lurralde konkretu batean kokatu eta diagnostiko lurreratu bat garatzera dator, azterketa sozioekonomikoaren eta landa-lanaren bidez.

3.1. Kokapen geografikoa eta egitura funtzionala

Ikerketa hau Baztan-Bidasoa eskualdean gauzatzen da. Nafarroako ipar-mendebaldean kokatua, azpimarratzekoa da eskualdearen kokapen berezia, Gipuzkoaren Nafarroaren eta Ipar Euskal Herriaren arteko mugagunean. Udal eta mankomunitate ezberdinek kudeatutako lau bailaraz osatuta dago: Baztan, Bertizarana, Malerreka eta Bortziriak. Ikerketa honetan, Zugarramurdi eta Urdazubi udalerriak ez dira azterketa-eremuan barneratuko.

Irudia 2: Baztan-Bidasoako mapa (2026)



Iturria: Baztan-Bidasoa Turismoa (2026).



Taula 2: Baztan-Bidasoako antolaketa (2026)

Bailara	Herriak	Antolaketa administratiboa
Baztan	Almandoz, Berroeta, Aniz, Ziga, Oronoz, Arraioz, Irurita, Gartzain, Lekaroz, Elizondo, Elbete, Arizkun, Azpilkueta, Erratzu eta Amaiur.	Udal barruti bakar eta partekatua (Elizondon).
Bertizarana	Legasa, Narbarte eta Oiiregi.	Udal barruti bakarra eta partekatua (Narbarten).
Malerreka	Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Zubietta, Urrotz, Oitz, Donamaria, Sunbilla, Ezkurra, Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaien	Udalerri autonomoak, baina hainbat zerbitzu mankomunitate bidez antolatzen dira.
Bortziriak	Bera, Lesaka, Etxalar, Igantzi eta Arantza.	Udalerri autonomoak, baina hainbat zerbitzu mankomunitate bidez antolatzen dira.

Iturria: Norberak egina.

Bera, Lesaka, Doneztebe eta Elizondo herriak inguruko herri txikiagoentzako erreferentzia-gune bezala identifikatzen dira. Biztanleria aldetik herri handienak izateaz gain, bertan kokatzen dira oinarritzko zerbitzu ugari (merkataritza, hezkuntza, oinarritzko osasuna eta abar). Horrela, jarduera sozioekonomiko nagusien garapen nodo zentralizatu gisa jarduten dute. Horrenbestez, aipatzekoa da biztanleriaren zati batek ez duela erreferentzia-gune hauetara oinez iristeko aukerarik.

Bestalde, tokiko erdigune hauen gaitasuna ere mugatua da, hainbat zerbitzu, hala nola, ospitaleak, unibertsitateak, arreta espezializatu eta abar, eskualdetik kanpo baitaude. Testuinguru honetan, aipatzekoa da eskualdeak hurbileko hiriekiko duen menpekotasuna. Nafarroako hiriburu gisa, Iruñak funtsezko papera betetzen du, han zentralizatzen baitira administrazio-egiturak (Cederna Garalur, 2023).





Taula 3: Hiri nagusiekiko distantzia kilometrotan (2026)

	Irun	Donosti	Iruña	Baiona	Gazteiz	Bilbo
Baztan	51,9	70,9	56,6	49,7	138	169
Bertizarana	35,2	54,2	43,1	68,5	134	152
Malerreka	39,5	55,0	50,7	77,1	112,5	152,8
Bortziriak	21,7	40,7	63,4	55,0	137,2	138,8
Baztan-Bidasoa	37,1	55,2	53,5	62,6	130,4	153,2

Iturria: Norberak egina, Google maps-eko datuetatik abiatuta.

Irun da batez besteko distantzia txikiena erakusten duen hiria; ondoren, Iruña eta Donostia. Nahiz eta joera orokorrak logika hori jarraitu, aipatzekoa da Bortziriak bailarak Gipuzkoako hiriekiko duen hurbiltasuna. Bestalde, Baztanen kasuan, Baiona da hurbilen aurkitzen den hiria, eta ondoren Irun eta Iruña.

Eskualdearen egitura ulertzeko ezin ditugu alde batera utzi errepide-sareak. Nahiz eta errepide-sare ezberdinen bidez lotu, presentzia handiko ardatz nagusi bakarra du, N-121 errepidea. Errepide hau bereziki garrantzitsua da Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroaren lotura-gune gisa, jarduera ezberdinak, hala nola poligono industrialak, garraio-ibilbide garrantzitsuak eta abar, honen inguruan kokatzen baitira. Errepideak bi nodo nagusi ditu: N-121-A, Bortziriak, Malerreka eta Bertizarana zeharkatzen dituena, eta N-121-B, Baztan zeharkatzen duena. Bi nodo horiek Oronozen lotu eta Iruñaraino jarraitzen dute bidea (Cederna Garalur et al., d.g).

Orotara, mugikortasunaren afera lurraldean kezka handia sortzen duen gaia da, garraio

publikoko zerbitzu eskasa eta garraio pribatuarekiko menpekotasun handiak definituta (Ecolan eta Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitatea, 2020). 2024an motorizazio-tasa 0,58an kokatzen zen, Nafarroako (0,51) eta Gipuzkoako (0,46) tik gora².

Beraz, Baztan-Bidasoa eskualdean egitura funtzionala horrela definitu daiteke: lehenik, tokiko erdiguneak (Bera, Lesaka, Doneztebe eta Elizondo); eta bigarrenik, hurbileko hiriak, Irun, Donostia, Baiona eta Iruña. Azkeneko honetan kontzentratuz funtzio administratiboen zati handi bat, hau guztia N-121 errepidearen baitan. Aipatzekoak dira eskualdean bertan oinarritzko zerbitzu batzuen urruntasuna (osasun-arreta espezializatua, bigarren mailako hezkuntza eta abar) eta garraio pribatuarekiko mendekotasuna. Egitura horrek azaltzen du eskualdeko mugikortasunaren eta lurralde-antolamenduaren oinarritzko logika.

²Motorizazio-tasak egileak kalkulatu ditu, DGT, INE eta Eustateko datuetatik abiatuta.



3.2. Azterketa sozioekonomikoari hurbilpena Baztan-Bidasoan

Lurralde baten azterketa sozioekonomikoak ehun ekonomikoaren hainbat arlori egiten die so. Gorago esan bezala, hezkuntza, turismoa, etxebizitza eta beste zenbait arlo sozioekonomiko garrantzitsu azterketa honetatik kanpo geratuko dira, eta marko teorikoan azpimarratutako krisi multidimentsionalari lotutako arloei erreparatu diegu nagusiki. Zentzu horretan antolatu eta landu da atal hau.


3.2.1 Azterketa demografikoa

Lurraldearen antolaketa ulertu ondoren, hurrengo galderara egingo dugu salto: Nor bizi da lurraldean? Zein dinamika demografikok baldintzatzen dute etorkizuna?

Baztan-Bidasoak 2025an 21.986 pertsonako biztanleria biltzen zuen: 8.513 Bortzirietan, 7.851 Baztanen, 4.954 Malerrekan eta 668 Bertizaranan. Azken urteetan, biztanleriaren bilakaera gorakorra baina nahiko egonkorra izan da, 1996tik 2025era %2,6ko hazkundearekin. Dentsitateari begiratuz gero, 26,8 biztanle/ km²-ko dentsitatea erakusten zuen lurraldeak 2025an. Bortziriak dira

biztanleria-dentsitate handieneko eremua, eta Bertizarana txikieneko. Hori horrela izanik, ezin da esan eskualdeak hustuketa demografiko sakona pairatzen duenik. Hala ere, udalerri guztien errealitatea ez da berdina, desberdintasun horiek bereziki aipagarriak izanik Malerreka kasuan. Izan ere, Ezkurra, Donamaria eta Beintza-Labaien herriek hustuketa demografiko sakona pairatzen dute, 5,27, 5,99 eta 8,14 biztanle/km²-ko dentsitateak baitituzte. Bestalde, bailarako herri handiena den Doneztebek, berriz, 213,12 biztanle/km²-ko dentsitatea du (Nastat, d.g.).

Grafikoa 1: Baztan-Bidasoako biztanleriaren bilakaera (1998-2025)




Iturria: Norberak egina, Nastateko datuetan oinarrituta.



Biztanleriaren egonkortasuna etorkinei esker mantendu izan da. Hazkunde naturalak (jaiotzak ken heriotzak) balio negatiboak izan baititu, migrazio saldoak positiboak eta gorakorrak izan diren bitartean. Aipatzekoa da migratzaile hauen gehiengoa estatuko beste komunitate autonomo batetik etorritakoa dela. Ondoren, Nafarroatik bertatik etorritakoak kokatzen dira eta azkenik beste herrialde batetik etorritakoak (Cederna Garalur, 2023). Etorkinek biztanlerian

duiten pisua %6,9koa da, Nafarroako batezbestekoa (%18,8) baino nabarmen txikiagoa. Baztan da migratzaileen pisu erlatibo handiena duen bailara, %8,3 (Nastat, d.g.). Migrazio-fluxu hauek mundu globalizatuan baldintza prekarioen inguruko mugimenduei erantzuten diete, etorkinak izanik kasu askotan egitura demografikoaren, sektore batzuen edo belaunaldi-erreleboaren sostengu.

Grafikoa 2: Migrazio saldoak, hazkunde begetatiboa eta hazkunde naturala Baztan-Bidasoan (1999-2025)




Iturria: Norberak egina, Nastateko datuetan oinarrituta.

Gizartearen adin-egiturari dagokionez, Baztan-Bidasoak mendebaldeko gizartearen joera orokorra jarraitzen du, biztanleriaren zahartze prozesuarekin bat eginez. Piramide demografikoak alderantzizko piramidearen egitura du, non 45 eta 64 urtetik gorako biztanleriaren pisua oso handia den

gainerakoekin alderatuta. Bestalde, adinean behera joan ahala, adin-tarteak duen pisua gero eta txikiagoa suertatzen da. Horrela, zahartze-indizea %278,9an kokatzen da, mendekotasun senilaren indizea %40,55 den bitartean (Nastat, d.g.).


Grafikoa 3: Baztan-Bidasoako piramide demografikoa (2025)



Iturria: Norberak egina, Nastateko datuetan oinarrituta.




Grafikoa 4: Baztan-Bidasoako adin egitura (2025)



Iturria: Norberak egina, Nastateko datuetan oinarrituta.

Fenomeno hau bi bideren bidez azaltzen da. Alde batetik, gero eta gehiago bizi gara. Azken urteetan bizi-itxaropenaren igoera nabarmena eman da, horrela, heriotzak berdin mantendu dira, nahiz eta biztanleria handiagoa izan. Bestetik, jaiotza-tasak beherakada nabarmena izan du, eskualdean 2008an 255 ume jaiotzetik 2024ean 138 jaiotza besterik ez izatera igaroz.

Grafikoa 5: Baztan-Bidasoako jaiotzen eta heriotzen bilakaera (2008-2024)



Iturria: Norberak egina, Nastateko datuetan oinarrituta.

Gainera, eskualdean biztanleriaren %51 dira gizonezkoak, %49 emakumezkoak diren bitartean. Nafarroan, %50,5 dira emakumeak, Iruñean berriz, %52,6 (Nastat, d.g.). Datu horiek alderatuz ikusi dezakegu Baztan-Bidasoan maskulinizazioa errealitate bat dela. Fenomeno hori orotara landa eremuko herrien maskulinizazio-prozesuaren bidez azaltzen da, faktore ezberdinak direla medio (enplegu aukerak, genero rolen lotura, zaintza beharrak arintzeko aukerak, eta abar) (Malerrekako mankomunitatea, 2024).

Azterketak argi uzten ditu Baztan-Bidasoak dituen erronka demografikoak: biztanleriaren kontzentrazio prozesuak, biztanleriaren zahartzeak, jaiotza-tasa beherakorak, migrazio-tasa positiboak eta maskulinizazioak baldintzatuta. Honek erakusten du, lan-merkatua, zaintza-sistema, kultur aniztasuna, elkarbizitza eta belaunaldi-erreleboaren gaiak elkarriketen erdigunea izateko beharra.




3.2.2 Bizitza duinerako errenta baldintzak

Biztanleriaren egitura demografikoa aztertu ondoren, hurrengo galderara pasatuko gara: zein baldintza materialetan bizi da biztanleria hori? Zein gaitasun ekonomiko dute lurraldeko biztanleek?

Errentari dagokionez, azken datu fidagarriak 2023an kokatzen dira, Baztan-Bidasoako

pertsonako batezbesteko errenta 15970,47 eurotan kokatuz, Nafarroako eta EAEko batezbestekotik behera. Eskualde barruan ere badaude aldeak, Bortziriak izanik errenta handiena duen bailara eta Bertizarana, berriz, txikiena.

Grafikoa 6: Pertsonako batezbesteko errenta (2023)



Iturria: Norberak egina, INEko datuetan oinarrituta.

Hala ere, batezbesteko errentak ez du hau biztanleen artean nola banatzen den erakusten. Gini-indizeak errenta eta beste aldagai batzuen kontzentrazioa neurtzen du, Otik 100erako eskalan (edo 0-1), non 0 balioak banaketa guztiz berdina erakusten duen eta 100ek desoreka maximoa. Baztan-Bidasoaren kasuan, 2023an 28,4ko balioak hartzen ditu indizeak. Malerreka da errentaren banaketan balio desorekatuenak dituen bailara (29,3), eta Bertizarana banaketa berdinen erakusten duen (26,8) (Nastat, d.g.). Azken datuen arabera, BPG altuenak dituzten herrialdeak, AEBk eta Txinak, 41,8 eta 36ko balioak dituzte. Balio horien inguruan kokatzen dira Europako herrialdea asko ere, nahiz eta iparraldeko herrialdeek balio hobeak erakutsi; adibidez Eslovenia (24,7) eta Norvegia (26,5). Bestalde, Espainiako Estatuan 33 puntuko balioak ikusten dira (Grupo Banco Mundial, 2026). Beraz, nahiz eta Baztan-Bidasoan berdintasun sozioekonomikoa nahiko ona izan, bada zer hobetu.

Bestalde, garrantzitsua da zaugarritasun-egoerak identifikatzea. Eskualdean biztanleriaren %18,3 pobrezia-arriskuan dago. Berrito ere, Malerreka da datu kezkarrienak erakusten dituen bailara (%20,34). Bestalde, Bortzirietan ikuskatzen dugu pobrezia-arrisku txikiena (%16,52) (Nastat, d.g.). Espainiar Estatuarekin alderatuta (%20,2) datu hobeak baditu ere, Nafarroakoak (%13,8) eta EAEkoak (%10,2) baina okerragoak dira (INE, 2026). Aldi berean, Europako batezbestekotik nahiko hurbil dabil (%16,2) (Eurostat, 2025).

Beraz, Baztan-Bidasoan Gini-indizeak desberdintasun sozioekonomiko nahiko apala erakusten badu ere, batez besteko errenta Nafarroako eta EAEko erreferentzien azpitik kokatzeak eta pobrezia-arriskuan dagoen biztanleriaren pisuak agerian uzten dute lurraldean zaugarritasun sozial eta ekonomikoari lotutako erronkek indarrean jarraitzen dutela.




3.2.3 Lan-merkatua eta ehun-ekonomikoa

Eskualdean bizitza duina izateko errenta-baldintzak nolakoak diren aztertu ondoren, hurrengo galderara egiten dugu salto: zein lan-aukera eskaintzen ditu lurraldeko biztanleriak bertan bizitzeko proiektu egonkor bat sostengatu ahal izateko? Horregatik, hurrengo pausua lan-merkatua eta jardura ekonomikoaren antolaketa aztertzea da.

Nafarroak (%7,04) baino langabezia-tasa baxuagoak erakusten ditu. Bertizarana da eskualdeko langabezia-tasa altuena duena (%7,47), eta Bortzirak txikiena (%2,92). Bilakaerari dagokionez, 2008ko krisiaren ondorioz, 2011-2013 urteetan jo zuen goia, %13,17ra iritsiz. Hau horrela izanik ere, geroztik joera beherakorra izan da, 2020-2021 urteetan izan ezik, COVID-19aren pandemia dela medio.

2024ko datuak erreferentziatzat hartuta batez beste Baztan-Bidasoak (%4,91) EAEk (%7,7) eta

Grafikoa 7: Langabezia tasaren bilakaera (2011-2024)




31

Iturria: Norberak egina, Nastat, INE eta Eustateko datuetan oinarrituta.

Langabezia-tasa adinaren eta sexuaren arabera zatikatuz gero, emakumezkoen langabezia-tasak gizonezkoenak baino handiagoak direla ikusi dezakegu. Aldi berean, adinean aurrera joan ahala, are altuagoak dira. Zatiketa honen arabera, langabezia-tasa altuenak 55 urtetik gorako emakumeetan ikusten ditugu (%11,4).

Grafikoa 8: Baztan-Bidasoako langabezia tasa sexuaren eta adinaren arabera (2026)




Iturria: Norberak egina, Nastateko datuetan oinarrituta.



Lan-merkatuan aurkitu ditzakegun desberdintasun hauek oraindik nabariagoak dira soldata-arrakalak aztertzerakoan. Sexuaren arabera soldata-arrakala (%21) Nafarroako batezbestekotik (%18) gora kokatzen da. Desgaitasunaren arabera, berriz, eskualdean %31eko arrakala dago, eta Nafarroan, berriz, %25ekoa. Bestalde, nazionalitateari dagokion soldata-arrakala (%26), Nafarroako datutik (%29) bera kokatu arren, aipatzeko modukoa da.

Irudia 3: Nafarroako soldata arrakala eskualdeka, ezaugarrien arabera (2023)




Iturria: Nastat, Soldata Egituraren Udal Estatistika Nafarroako Foru Komunitatea (2023).

Azterketarekin jarraituz, lanaldi motei dagokionez, kontratuen %76 lanaldi osokoak dira. Hau horrela izanik, aipatzekoa da lanaldi partzialeko kontratuen feminizazioa (%76).



Grafikoa 9: Lanaldi mota, sexuaren arabera, Baztan-Bidasoan (2025)



Iturria: Norberak egina, Nastateko datuetan oinarrituta³.

Lanpostuen egiturarekin jarraituz, garrantzitsua da lanpostuak eskualdean bertan dauden jakitea. Nahiz eta eskualde osoko daturik ez izan, udalerri nagusien datuetatik abiatuz egingo dugu azterketa, kontuan izanik herri txikiagoen esperientzia zertxobait desberdina izan daitekeela. Horrela, langileen %62k bizilekutik kanpo egiten du lan. Bizilekuan bertan lan egiten duten biztanleen pisua bereziki aipagarria da Baztan eta Malerrekan.

Bestalde, Beran eta Lesakan bizilekutik kanpo lan egiten duten pertsonen kopurua adierazgarriagoa suertatzen da, azken honetan bereziki handia izanik beste erkidego batean lan egiten duten pertsonen kopurua. Datu hauek, nolabait, aurretik aipatutako distantzien azterketa eta garraio pribatuarekiko menpekotasuna osatu eta eskualdeko biztanleriak bertan lan egiteko duen zailtasuna uzten dute agerian.

Taula 4: Lan lekua, bizilekuaren, probintziaren eta erkidegoaren arabera (2021)

	Bizilekuaren berdina		Probintzia berdina, udalerri ezberdina		Beste erkidego bat		Ez dago daturik		Guztira
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.
Baztan	2589	%37,02	3411	%48,78	909	%13	81	%1,16	6993
Doneztebe	1257	%37,28	2878	%55,69	201	%5,96	39	%1,16	3372
Bera	210	%27,03	492	%63,32	69	%8,88	9	%1,16	777
Lesaka	357	%29,31	552	%45,32	294	%24,14	18	%1,48	1218
Guztira	4413	%35,70	6333	%51,24	1473	%11,92	147	%1,19	12360

Iturria: Norberak egina, INEko datuetatik abiatuta.

³Datu hauek Nastat-Nafarroako Estatistika Institutuak emandako informazioan oinarrituta dago, mezu elektroniko bidez jasoa (2026ko apirilaren 15a).




Ondorioz, Baztan-Bidasoako lan-merkatuak enplegu-adierazle orokorretan egoera nahiko positiboa erakusten badu ere, barne-desberdintasun esanguratsuak ageri dira. Bereziki aipagarriak dira emakumeen, adineko pertsonen, atzerritar jatorriko biztanleriaren eta desgaitasuna duten pertsonen zaurgarritasuna, baita lanaldi partzialaren ere. Horrez gain, biztanleriaren zati handi batek bizilekutik kanpo lan egiteak lanaren lurralde-antolaketa eta mugikortasun beharrak azpimarratzen ditu.

Jarraituz, bereziki beharrezkoa suertatzen da ehun ekonomikoa nolakoa den aztertzea. Enpresa kopuruari dagokionez, 2025ean 1617

enpresa aurkitzen ditugu, Bortziriak izanik enpresa gehienak kokatzen diren bailara (%40). Azken urteetan bilakaera beherakorra izan da, COVID-19aren pandemian zertxobait azkartu zena. Nahiz eta 2023-2024 urteen tartean kopurua zertxobait igo, 2025eko datuak berriro ere negatiboak dira. Horrela, egun 2011n baino 324 enpresa gutxiago daude eskualdean. Jaitsiera honek hainbat gairi erantzuten die, hala nola kontsumo-joeren aldaketari (internet bidezko erosketak, merkatal-zentru handien lehiakortasuna etab.) eta belaunaldien arteko erreleboari, besteak beste.

Grafikoa 10: Enpresa kopuruaren bilakaera (2011-2025)




Iturria: Norberak egina, Nafarroako estatistika institutuko datuetatik abiatuta.

Enpresen tamainari dagokionez, enpresa gehienak mikroenpresak dira (%96,1). Enpresaren tamaina gero eta handiagoa izan oraindik eta txikiagoa da hauen presentzia eskualdean. Hori horrela izanik ere, eskualdean tamaina handiko lau enpresa aurkitzen dira. Hiru Bortzirietan kokatzen dira: bat Lesakan, ArcelorMittal; eta beste bi Beran, VentaPelo eta

VentaBiok. Beste bat berriz Malerrekan aurkitzen da: Donezteben, Anbulancias Baztan-Bidasoa. Nahiz eta gutxi izan, erakunde hauek bereziki baldintzatzen dute lurralde bakoitzeko egitura, baita eragile ezberdinen arteko dinamikak ere, lan-merkatuaren zati handi bat bertan kontzentratzen baita.



Grafikoa 11: Baztan-Bidasoako enpresen tamaina, soldatapeko langile kopuruaren arabera (2025)



■ Mikro ■ Txikia ■ Erataina ■ Handia


Iturria: Norberak egina, Nafarroako estatistika institutuko datuetatik abiatuta.

lido beretik, enpresak forma juridikoaren arabera sailkatuz gero, gehienak pertsona fisikoak dira (%66), ondoren forma juridikoak ezagunena sozietate mugatuak dira (%23) eta jarraian sozietate anonimoak. Kooperatibak %1 besterik ez dira, gainerako % 9ak beste egituraren bat duten bitartean. Sailkapen honek, gizarte-ekonomian dabilzan enpresen

pisu zehatzik adierazten ez badu ere, aipagarria da kooperatiben pisu eskasa. Errealitate honek, gizartean dagoen joera indibidualistari eta elkarrekin lan egitearen inguruan sortutako mesfidantzari erantzuteaz gain, enpresen tamaina txikiak eta forma juridiko batzuen inguruan sortutako erraztasunek baldintzatuta egon daiteke.

35

Grafikoa 12: Baztan-Bidasoako enpresak forma juridikoaren arabera (2025)



■ Pertsona fisikoa ■ Sozioetate mugatua ■ Sozietate anonimoa
■ Kooperatiba ■ Beste batzuk


Iturria: Norberak egina, Nafarroako estatistika institutuko datuetatik abiatuta.



Eskualdeko ehun-ekonomikoa zerbitzuen sektorearen gainean eratzen da, Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen %65 sektore honetan kokatzen baitira. Ondoren industria (%21) eta eraikuntza (%8) kokatzen dira, eta azkenik lehen sektorea (%5). Antolaketa hau, oro har, eskualde osoan

mantentzen bada ere, badira aldeak eskualdearen arabera. Bortzirietan industriaren pisua zertxobait handiagoa da (%26), nekazaritzarena txikiagoa den bitartean (%3). Baztanen, berriz, alderantzizkoa ikusi dezakegu: industriaren pisu txikiagoa (%17) eta nekazaritzaren garrantzi handiagoa (%8).

Grafikoa 13: Sektoreen pisu erlatiboa, Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsona kopuruaren arabera (2026)



Iturria: Norberak egina, Nastateko datuetatik abiatuta.

Beraz, eskualdeko ehun ekonomikoari dagokionez, nagusiki mikroenpresetan, pertsona fisikoetan eta zerbitzuen sektorean oinarritzen da. Azken urteetan enpresa kopuruaren beherakadak belaunaldi-erreleboari, jardueren jarraipenari eta enpresa txikien egonkortasunari lotutako erronkak agerian uzten ditu. Aldi berean, tamaina handiko enpresa gutxi batzuek pisu esanguratsua dute zenbait eremutan, eta horrek lan-merkatuaren eta sektore ekonomiko batzuen egitura baldintzatzen du. Azkenik,

kooperatiben pisu txikiak gizarte-ekonomiaren garapenerako dagoen tarteak erakusten du.

Marko teorikoan aipatu bezala, bizitzaren sostengua ez da lan-merkatuaren edo jardueraren ekonomiko konbentzionalaren bidez bakarrik bermatzen. Horregatik, orain arteko diagnostikoa osatzeko, jarraian zaintza, energia eta elikadura aztertuko dira, lurraldearen bizigarritasuna eta trantsizio ekosoziala baldintzatzen dituzten eremu estrategiko gisa.



3.2.4 Zaintza eta erreprodukzio soziala


Zaintza bizitzaren mantenu eta erreprodukziorako funtsezko jardura da. Hala ere, zaintza-lan horiek historikoki ikusezinak eta gutxietsiak izan dira, eta gehienetan emakumeen gain jarri dira, aitortza sozial eta ekonomiko eskasarekin. Gaur egun, zaintza-krisia errealitate ukaezina da. Zahartze demografikoaren, familia-egituren aldaketaren, emakumeen lan-merkaturatzearen eta ohiko babes-sareen ahultzearen aurrean, zaintzak ez dira berrantolaketa kolektibo eta ekitatibo baten bidez antolatu; zaintza-kate globalen eta erdi-soluzio merkantilen bidez baizik. Ondorioz, zaintza-lanak oraindik ere naturalizatuak, pribatizatuak eta feminizatuak daude, generoak ez ezik, klase sozialak, jatorriak eta migrazio-estatusak ere baldintzatuak.

Landa-eremuetan egoera horrek baditu ezaugarri bereziak. Alde batetik, zahartze-prozesuak zaintza-beharren hazkundeak dakar; bestetik, herrien sakabanaketak, zerbitzuen zentralizazioak, garraio publikoaren mugek eta

landa-eremuen maskulinizazioak zaintza-lanen antolaketa are zailagoa bihurtzen dute. Hiriguneekin alderatuta, zerbitzu gutxiago eta irisgarritasun-arazo handiagoak daude, eta hutsune horiek askotan familien eta, bereziki, emakumeen denboraren bidez betetzen dira (Bortzirietako Berdintasun Zerbitzua, d.g.).

Eskualdeko datuei erreparatuta, batez besteko mendekotasun-tasa %60koa da. Bertizaranak du tasarik altuena (%80), eta Baztanek baxuena (%58). Datu horiek ez dute esan nahi pertsona horiek guztiak mendekotasun egoeran daudenik, baina bai lurraldean adinaren arabera zaintza-beharrek potentzialki handiak direla. Zehazki, eskualdean 13.174 pertsona inguru daude mendekotasun-adinean edo zaintza-beharren hazkundearekin lotutako adin-tarteetan. Datu zehatzagoak Bortzirietarako baino ez daude eskuragarri: bertan, 238 pertsonak dute aitortutako mendekotasuna, hau da, biztanleriaren %2,8k (Bortzirietako Berdintasun Zerbitzua, d.g.).

Grafikoa 14: Mendekotasun tasa, adinaren eta bailararen arabera (2024)



Iturria: Norberak egina, Nastateko datuetatik abiatuta.

Zaintza-beharrek, oro har, lau bideren bidez asetzen dira: familien bidez, komunitatearen bidez, zaintza-lanak merkaturan kontratatuta edo zerbitzu publikoen bitartez (Malerrekako Mankomunitatea, 2024). Hala ere, eskualdean ez dago zaintza modu integral eta espezifikoa antolatzen duen sistema publikorik. Zaintzarekin lotutako hainbat azpiegitura eta ekimen badaude, baina zaintza ez da beti horien ardatz

nagusia. Gehienetan, esku-hartzea gizarte-zerbitzuen bidez antolatzen da, mankomunitateen bitartez, eta gehienetan arreta-eredua mendekotasuna aitortua duten pertsonen beharrei erantzutera mugatzen da. Beraz, arreta-eredua ikuspegi asistentzialista eta erreaktiboan oinarritzen da, ikuspegi prebentibo eta komunitarioago baten kaltetan (Bortzirietako Berdintasun Zerbitzua, d.g.).



Taula 5: Bortzirietako zaintza azpiegiturak

Bortziriak			
Zerbitzua	Herria	Erabiltzaileak	Kudeaketa
Etxez etxeko laguntza	5 herriak	64	Mankomunitateak
Adinekoen egoitzak	Lesaka eta Bera	80	Publikoa/Patronato bidez
Jubiloteka	5 herrietan	74	Gizarte zerbitzuak eta osasun etxeko profesionalak
Elkarrian	Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesaka	63 boluntarioz osatua.	Boluntarioa, Gizarte-zerbitzuen mankomunitatearekin elkarlanean.
Uxane Zentroa	Bera	25	Aspace
Maddi egoitza	Bera	16	Aspace
Hautzaindegia	Bera, Lesaka eta Arantza	71	Publikoa
Udalekuak		262	Euskara mankomunitateak

Iturria: Norberak egina, Bortzirietako berdintasun zerbitzua (d.g), dokumentutik abiatuta.

Bortzirien kasuan, zaintzarekin lotutako azpiegitura eta ekimen mapa nahiko zabala da. Hala ere, taulak ez du zaintza-sistema integralik erakusten; zaintza-beharrak zuzenean edo zeharka sostengatzen dituzten azpiegitura eta zerbitzuen ikuspegi orokorra baizik.

Azpiegitura eta zerbitzu horiek ez dira nahikoak pertsona askok dituzten zaintza-behar osoak asetzeko. Bortzirietan, mendekotasuna aitortua duten 238 pertsonetatik 46 bakarrik dira gizarte-zerbitzuen erabiltzaile. Gainera, azpiegitura batzuk Bera eta Lesakan

zentralizatuta daude, herri txikiagoetako biztanleen sarbidea zailduz. Horrek agerian uzten du zaintzaren antolaketa ez dela soilik zerbitzu kopuruaren araberakoa; lurralde-banaketak, irisgarritasunak eta zerbitzuen intentsitateak ere baldintzatzen dute (Bortzirietako Berdintasun Zerbitzua, d.g.).

Malerreka eta Bertizaranaren kasuan, bi eremuak Malerrekako Mankomunitatearen bidez kudeatzen direnez, ondorengoa da egoera:

Taula 6: Malerrekako zaintza azpiegiturak

Malerreka			
Zerbitzua	Herria	Erabiltzaileak	Kudeaketa
Etxez etxeko laguntza	5 herriak	5 langile jardun osoan	Mankomunitateak
Haur eskola	Doneztebe	30	Publikoa
Kabietxea	Sunbila	6	Publikoa
Jubiloteka	Sunbilla, Ezkurra, Donamaria eta Zubieta		

Iturria: Norberak egina, Malerrekako mankomunitatea (2024), dokumentutik abiatuta.



2023ko datuen arabera, Malerrekako gizarte-zerbitzuek 46 pertsonari eman zieten arreta, beharrak askoz handiagoak diren testuinguru batean. Gainera, hainbat baliabideren falta sumatzen da: ez dago adinekoen egoitzarik, ez eguneko zentrorik, ez pisu tutelaturik. Horren ondorioz, Malerrekako biztanleentzat Elizondo, Lesaka eta Berako egoitzak erreferentzia

bilakatzen dira, zaintza-beharren eta lurralde-antolaketaren arteko desoreka agerian utziz.

Baztanen kasuan, ez da aurkitu zaintza-baliabideen zerrenda artikulatu eta bateraturik, baina hainbat zerbitzu identifikatu dira zaintzarekin lotuta.

Taula 7: Baztango zaintza azpiegiturak

Baztan			
Zerbitzua	Herria	Erabiltzaileak	Kudeaketa
Adinekoen egoitza	Elizondo	99	Publikoa
Eguneko zentroa	Elizondo	15	Publikoa
Etkez etxeko laguntza	Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdi	5 langile	Publikoa
Jubiloteka	Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdi	5 plazako 2 talde, jardunaldi bakoitzean.	Harremanak irabazi asmorik gabeko elkarte, Baztango Udala eta Nafarroako udalarekin elkarlanean.
Haur eskola	Elizondo		Publikoa
Ludoteka	Lekaroz		
Udako aisialdi zerbitzua			
Buru-osasunean espezializatutako egoitza	Elizondo	154 plaza eta pisu tutelatu 1	Publikoa
Adinez txikiko pertsonentzako harrera zentroa	Elizondo	20 plaza eta 26 langile	Nafarroako Gobernua

Iturria: Norberak egina,

Nahiz eta datuak mugatuak izan, argi ikusten da zerbitzu desberdinak egon arren, ezin direla inolaz ere balarako beharrak ase. Gainera, zerbitzu batzuk Urdazubi, Zugarramurdi eta Baztan osoan zehar zatikatzen dira, zerbitzu gehienak Elizondon kokatzen direla gehituz.

Ondorioz, eskualdean badira zaintzari lotutako zerbitzu ezberdinak, eta, oro har, horien balorazioa positiboa da. Hala ere, aztertutako dokumentu ezberdinek ondorio bera

azpimarratzen dute: zaintza-behar gehienak eremu pribatuan konpontzen dira. Zaintza-lanen %86tik gora etxeetan asetzen dira, gehienetan familietako emakumeen eskutik; beste %7 ekonomia informalaren bidez betetzen da; eta gainerako %7a zerbitzu publikoen, kontratu formalen eta komunitate edo babes-laguntzen bidez. Horrek erakusten du egungo zaintza-eredua oraindik ere familiarizatua eta pribatizatua dela, eta zaintza-



lanen zama ez dela sozialki modu bidezkoan banatzen.

Egoera horretan, pertsona batzuek zaintza “tokatu zaidan kondena” gisa bizi dute. Zaintza-lanak ez baitira beti aukera kontziente edo partekatu baten ondorio, familia barruan norbaiti egokitzen zaion ardura baizik. Horrek, kontziliazio-arazo larriak sortzen ditu, bereziki gaixotasun larriak edo mendekotasun handiko egoerak direnean tarteko. Bestalde, ikuspegi prebentiboaren faltak eta mendekotasun-balorazioen moteltasunak zaildu egiten dute beharrezko arreta garaiz eta modu egokian ematea (Bortzirietako Berdintasun Zerbitzua, d.g.; Malerrekako Mankomunitatea, 2024; Baztango Udala, 2022).

Zaintza-sistema ezin da guztiz ulertu zaintzaile profesionalen eta etxeko langileen egoera aztertu gabe. Zaintzaileen profil komun bat aipatzen da: emakumea, klase baxu edo ertainekoa, eta gero eta gehiago atzerritar jatorrikoa. Hala ere, esperientziak anitzak dira, eta ezin dira guztiak modu homogeneoan ulertu. Bortzirietako diagnostikoak (d.g.) erakusten duenez, etxex-etxeko laguntza-zerbitzua familientzat arnagune garrantzitsua bada ere, arreta-ereduaren inguruko kezka nabaria da, baliabide eta denbora faltagatik. Gainera, zaintzaileek higadura fisiko eta emozional handia pairatzen dute. Antzeko kezkak azaltzen dituzte egoitzetako langileek ere, bereziki mendekotasun-maila gero eta handiagoek sortzen dituzten beharrei erantzuteko zailtasunei eta lan-baldintzen inguruko eztabaidari dagokionez. Ildo beretik Baztango Benito Menni, buru osasunean espezializatutako egoitzako langileak, hainbat urte daramatzate lan-baldintza duinak lortzeko borrokan (Tipi-Ttapa, 2025).

3.2.5 Energiari buruzko lau pintza

Jadanik aipatu bezala, energia gai estrategikoa da trantsizio ekosozialaren ikuspegitik. Egungo eredu sozioekonomikoa ahalmen handiko erregai ugari eta merkeetan oinarritu da, eta horrek lotura zuzena du krisi klimatikoarekin, baliabideen agortzearekin eta eguneroko bizitzaren antolaketarekin.


Datu konketuagoen faltan, Nafarroako eta Espainiar estatuko datuak erabiliko dira

Hala ere, egoerarik kezagarrienetako bat etxeko langileena da. Lan horiek, maiz, informalitatearekin, prekarietatearekin, esplotazioarekin eta tratu txarrekin lotzen dira. Etxeko langileen %17,7k astean 40 orduetik gora egiten du lan, eta %9,7k 61 orduetik gora. Horrez gain, %38k ahozko indarkeria jasan duela adierazi du, %9k sexu-indarkeria eta %5ek indarkeria fisikoa. Gainera, soldatak gehienetan gutxieneko soldataren ingurukoak dira, eta oporrak hartzeko eskubidea langileen %64k baino ez du bermatua (Malerrekako Mankomunitatea, 2024).

Beraz, nahiz eta zaintzaren inguruko diagnostiko sakonagoa beharrezkoa izan, antzematen da zaintzaren gaia oraindik ere korapilatsua dela eskualdean. Zaintza-lanak feminizatuak eta prekarizatuak daude, eta zerbitzuak ez dira pertsona guztiengana iristen, ezta behar den intentsitatearekin ere. Gainera, baliabideetako asko udalerrri handienetan zentralizatuta daude, eta horrek are gehiago zailtzen du landa-eremuko herritarren, zaintzaileen eta zaintza-beharrek dituzten pertsonen eguneroko antolaketa.

Ondorioz, erronka nagusia zaintza eremu pribatu eta ikusezinetik atera, aitortu, sozialki banatu eta modu publiko-komunitarioago batean antolatzea da. Horretarako, ezinbestekoa da zerbitzu publikoen estaldura indartzea, zaintzaile profesionalen eta etxeko langileen lan-baldintzak duintzea, zaintzaileentzako arnaguneak eta babes-sareak sortzea, eta landa-eremuaren berezitasunak kontuan hartuko dituen zaintza-eredu hurbilago, prebentiboago eta bidezkoago bat eraikitzea.

erreferentziazat. Azken urteetan, Nafarroan, mundu mailan bezala, energia kontsumoak gora egin du. Zehazki, Nafarroako datuen arabera, 2009tik 2025era energia kontsumoa %18 igo da, jadanik aipatu bezala, egoera nahiko kritikoa den testuinguru batean.

Grafikoa 15: Nafarroako energia kontsumoaren bilakaera (milioi kWh⁴) (2009-2025)

Iturria: Norberak egina Nastateko datuetatik abiatuta.

Espainiar Estatuko biztanleko energia-kontsumoak 5167,5 kWh-ko balioak hartu zituen 2024an. Horrek mundu mailan kontsumo-maila ertain-altukoa bezala definitzen du, Montenegro (5.198,6 kWh), Malta (5.087,6 kWh) edo Alemaniaren (5.867,1 kWh) antzera. Munduan, biztanleko energia-kontsumo handienak dituzten herrialdeak Islandia (47.465,2 kWh), Norvegia (23.018,6 kWh) eta Bahreïn (23.562,5 kWh) dira. Bestalde, gutxien kontsumitzen duten herrialdeak Afrika Erdiko Errepublika (24,8 kWh) eta Txad (14,9 kWh) dira (Datosmacro, 2025).

Nafarroako datuek mendekotasun energetiko handia erakusten dute. 2024an, autohornikuntza energetikoa %21,25ekoa izan zen; hau da, kontsumitzen den energiaren zati handi bat oraindik kanpotik dator. Bestalde, energia berriztagarriek azken energia-kontsumoaren %28,29 hartzen dute, beraz

energia berriztagarriak ez dira kontsumoaren iturri nagusia. Gainera, egoera nabarmen aldatzen da garraioari begiratuz gero: sektore horretan berriztagarrien kuota %6,25era jaisten baita (Nastat, 2025). Datu horiei garraio pribatuarekiko mendekotasuna eta motorizazio tasa bereziki altuak gehituz gero, mugikortasunaren aferak energia-kontsumoan izan dezakeen posizio estrategikoa helarazten digu.

Ondorioz, energiaren diagnostiko labur honek lau ideia nagusi uzten ditu: kontsumo-mailaren murrizketa beharrezkoa da, mendekotasun energetikoak handia izaten jarraitzen du, berriztagarrien pisua oraindik ez da nahikoa eta mugikortasunak eta garraioak posizio bereziki estrategikoa dute. Hala ere, energiaren diagnostikoak sakontasun askoz handiagoa eskatzen du.

⁴kWh (kilowatt-ordua): energia elektrikoa neurtzeko erabiltzen den unitatea; 1 kW-ko potentzia ordubetez mantentzean lortzen den energia adierazten du.



3.2.6 Elikadura-sistema eta lurraren erabilera


Elikadura-sistema bizitzaren sostengurako eremu estrategikoa da, eta ez da lehen sektorearen azterketara soilik mugatzen. Horregatik, elikaduraren diagnostikoak kate osoari begiratu behar dio: zer ekoizten den, non eta nola ekoizten den, nola merkaturatzen den, zer kontsumitzen den eta zein harreman dagoen tokiko ekoizpenaren eta tokiko kontsumoaren artean.

Aurretik aipatu bezala, Baztan-Bidasoan lehen sektorearen pisu ekonomikoa ez da oso handia. Hala ere, eskualdearen izaera eta lurralde-antolaketa ulertzeko funtsezko sektorea da, paisaiaren kudeaketan, herri txikien bizigarritasunean, tokiko ekonomiaren dibertsifikazioan eta elikadura-burujabetzan duen eraginagatik. Sektorearen pisu erlatiboa bereziki aipagarria da Baztanen eta Bertizaranan, bi kasuetan %8 inguruan

kokatzen baita. Nafarroako batezbestekoa %3,5 ingurukoa dela kontuan hartuta, lehen sektoreak lurralde hauetan oraindik ere presentzia sozial eta ekonomiko esanguratsua duela ikusten da. Bortzirietan, aldiz, pisua txikiagoa da (%3), bailararen izaera industrialago batekin bat eginez.

Lehen sektorearen egoera ulertzeko, lurzoruen erabileri erreparatzea ezinbestekoa da. Datu zehatzagoen faltan, Nafarroako ipar-mendebaldeko datuek joera argi bat erakusten dute: lurzoruen gehiengoa baso-lurrek hartzen dute (%91), eta nekazaritzarako erabilitako azalera nabarmen murriztu da azken urteetan, 2007an %15 izatetik gaur egun %2,96 izatera pasaz. Lurzoru ez-emankorrek ere goranzko joera izan dute, %3tik %5era.

Grafikoa 16: Lurzoruaren erabilaren bilakaera Nafarroako ipar-mendebaldean (2007-2025)



Iturria: Norberak egina, Nastateko datuetatik abiatuta.


Ustiategi kopuruari dagokionez, eskualdean 2015ean 1.320 ustiategi identifikatzen ziren; gaur egun, berriz, 1.272 dira. Bestetik, ustiategi bakoitzeko nekazaritza-azalera erabilgarria handitu egin da, 17,5 hektareatik 19,68 hektareara. Baina, urteko lan-unitateak ez dira handitu, 0,42an mantendu baitira. Horrek nekazaritza-ereduaren kontzentrazio-prozesuaren hipotesia proposatzen du: ustiategi gutxiago daude, batez besteko azalera handiagoarekin. Joera horrek galdera garrantzitsuak irekitzen ditu lurraren banaketari,

belaunaldi-erreleboari eta ekoizpen-ereduaren iraunkortasunari buruz.

Ekoizpenaren norabideari erreparatuz, Baztan-Bidasoako lehen sektorea nagusiki abeltzaintzan oinarritzen da. Ekoizpen proiektuen %88 abeltzaintzari lotuta daude, eta laboreetara bideratutako proiektuak %4 besterik ez dira. Abeltzaintzaren barruan, artaldeak dira nagusi, proiektuen %60 ingururekin; ondoren, haragitako behiak kokatzen dira, %15eko pisuarekin.



Grafikoa 17: Baztan-Bidasoako ekoizpen proiektuak OTE-aren arabera (2025)



Iturria: Norberak egina, Nafarroako nekazaritza behatokiak datuetatik abiatuta⁵.


Lurraldeen arteko banaketari dagokionez, abere-buru handien unitateetan Baztanek du pisurik handiena, eskualdeko guztizkoaren %61 inguru. Ondoren Malerreka (%21), Bortziriki (%16) eta Bertizarana (%2) kokatzen dira (Nafarroako Gobernua, 2026). Datu horrek ez du zuzenean bailara bakoitzaren tamaina edo azalera kontuan hartzen, baina argi erakusten du Baztanek lehen sektorean eta, bereziki, abeltzaintzan duen zentralitatea. Hori garrantzitsua da Baztan-Bidasoa mailako elikadura estrategia posible bat

pentsatzerakoan, ekoizpen-gaitasuna ez baita modu homogeneoan banatzen.

Bestalde, ekoizpen-proiektuen profesionaltasun maila baxua da. Eskualdeko proiektuen %9 besterik ez da profesionala. Profesionalen artean gehienak nekazaritzara edo abeltzaintza mistora lotuta daude. Horren ondorioz, enplegu egonkorra, belaunaldi-erleboia eta tokiko elikadura-sistema sendoa bermatzeko mugak agerian geratzen dira.

43

Grafikoa 18: Baztan-Bidasoako ekoizpen proiektuen profesionaltasun maila, OTE-aren arabera (2025)



Iturria: Norberak egina, Nafarroako nekazaritza behatokiak datuetatik abiatuta⁶.

⁵⁻⁶Datu hauek Nafarroako Nekazaritza Behatokiak egilearen kontsultari erantzunez prestatutako taulan oinarritzen dira, Nafarroako Nekazaritza Erregistroko datuetatik abiatuta (komunikazio pertsonala, 2026ko maiatzaren 4a).



Ekoizpenaz gain, elikadura-sistemaren beste puntu garrantzitsu bat elikagaien eraldaketa eta merkaturatze-bideak dira. Eskualde osorako datu bateraturik ez dagoen arren, Bortzirietako eta Malerreka-Bertizaranako elikadura sistemaren diagnostikoak erabiliko ditugu euskarritzat. Bortzirietan, elikagaien eraldaketarekin lotutako enpresa-ehun bat identifikatzen da (haragia, arraina, prestatutako janaria edo bestelako produktu eraldatuak lantzen dituztenak), baina kasu askotan lehengaien jatorria edo salmenta-bideak ez daude tokiko elikadura-sistemari zuzenean lotuta. Aldi berean, eskala txikiagoko ogigintza, gaztagintza edo bestelako eraldaketa-esperientziak ere ageri dira, tokiko produktua eta merkaturatze-bide laburrak indartzeko potentzial handiagoarekin, baina eskala eta kantitate txikiagoan (Badal et al., 2021). Malerreka eta Bertizaranaren kasuan ere, nahiz eta datu gutxiago izan, zenbait esperientzia esanguratsu identifikatzen dira: ogigintza, gozogintza, gaztagintza, fruta-eraldaketa edo errota bezalako azpiegitura eta proiektuak, besteak beste. Aipatzekoa da eraldaketa barneratzen duten proiektuek kontratazio-gaitasun handiagoak dituztela (Oñederra et al., 2020).

Ekoizpen eta eraldaketa ekologikoaren pisua ere oraindik txikia da eskualdean. 22 proiektu ekologiko identifikatzen dira. Horrek erakusten du agroekologiaren edo ekoizpen ekologikoaren inguruko esperientziak egon badaudela, baina oraindik ez dutela eskala handirik. Horrek dudatan jartzen du bertatik eta ekologikoan elikadura-eskaintza oso bat emateko gaitasuna.

Jadanik aipatu bezala, elikadura sistema ez da ekoizpenera soilik mugatzen; kontsumoa eta merkaturatze-bideak ere aztertzea funtsezkoa da. Aztertutako bi diagnostikoek antzeko ondorioak jasotzen dituzte: bertako elikagaiak kontsumitzeko interesa badago, baina oraindik ere nabaria da kontsumo-proiektuen eta ekoizpen-proiektuen arteko deskonexioa. Badira elkarlan-esperientzia batzuk, baina orokorrean ez dago sistematizaziorik; gainera, tokiko produktuak garestiagoak direlako pertzepzioa, komunikazio-falta eta saretze ahula agertzen dira muga nagusi gisa.

Merkataritzari eta ostalaritzari dagokienez, tokiko produktua txertatzeko aukerak badaude, baina koordinazio eta kontzientziazio handiagoa behar da. Bestalde, kontsumo kolektiboko espazioek, eta bereziki jantoki kolektiboek, aukera estrategikoa eskaintzen dute tokiko elikadura sistema indartzeko. Izan ere, eskola-jantokiek, haur-eskolek edo zahar-etxeetako jantokiek eskari egonkorra sortzeko gaitasuna dute, eta horiek tokiko ekoizleentzat merkaturatze-bide interesgarria izan daitezke. Hala ere, horretarako beharrezkoa da menuak garaian garaiko produktuetara egokitzea, ekoizleekin harreman zuzenagoak sortzea, eskaerak koordinatzea eta administrazio publikoaren inplikazioa indartzea. Zentzu horretan, erosketa publiko arduratsua eta jantoki kolektiboen antolaketa tokiko elikadura-sistema eraldatzeko tresna estrategikoak izan daitezke (Badal et al., 2021; Oñederra et al., 2020).

Oro har, Baztan-Bidasoako elikadura sistemaren diagnostikoak bost ondorio nagusi ateratzen ditu. Lehenik, lehen sektoreak pisu ekonomiko mugatua eta ekoizpen-gaitasunaren banaketa desorekatua du. Bigarrenik, ekoizpen-eredua nagusiki abeltzaintzan oinarritzen da, eta baratzezaintzak, frutagintzak edo bestelako ekoizpen dibertsifikatuek presentzia txikiagoa dute. Horrek mugak sortzen ditu tokiko elikadura sistema anitzagoa eta burujabeagoa garatzeko. Hirugarrenik, ustategien kopuruaren jaitsierak, batez besteko azalera erabilgarriaren igoerak eta lan-unitateen egonkortasunak kontzentrazio-prozesu baten zantzuak erakusten ditu. Horri profesionaltasun maila baxua eta belaunaldi-erleboaren inguruko ziurgabetasuna gehitzen zaizkio. Laugarrenik, ekoizpen ekologiko eta agroekologikoaren presentzia oraindik txikia da. Hauek tokiko ekoizpena, lurralde-errotzea, merkaturatze-bide laburrak eta kontsumo kontzienteagoa artikulatzeko aukera eskaintzen dute, nahiz eta gaur-gaurkoz ez duten elikadura-sistema osoa baldintzatzeko adinako indarrik. Ildo horretan, azpiegitura partekatuek eralda ketara salto egin eta balio-kate burujabeagoak sortzea estrategikoa izan liteke, proiektuak errotu eta indartzeko.

Azkenik, tokiko ekoizleen eta kontsumo-



proiektuen arteko deskonexioa nabaria da. Horregatik, kontzientziazioa, saretzea eta ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko harreman egonkorak sortzea funtsezkoa izango da. Bide horretan, kontsumo kolektiboko proiektuek, jantoki kolektiboek eta erosketak publiko arduratsuak aukera estrategikoa

eskaintzen dute. Elikadura-burujabetzaren ikuspegitik, erronka nagusia lurraldeak bere elikadura-sistemaren gaineko erabakitze gaitasun handiagoa garatzea da: zer ekoitzi, nola ekoitzi, nola banatu eta nork eskuratu baldintza justu eta jasangarrietan.

3.3 Azterketa sozioekonomikoaren irakurketa eta sintesia

Taula 8: Azterketa sozioekonomikoaren irakurketa eta sintesia

Azterketa eremua	Irakurketa eta sintesi sozioekonomikoa
Lurraldearen antolamendua eta mugikortasuna	- Baztan-Bidasoa Nafarroako iparraldean kokatzen da, Gipuzkoa eta Lapurdirekin mugan. Lau bailarak osatzen dute eskualdea: Baztan, Malerreka, Bertizarana eta Bortziriak. - Bera, Lesaka, Doneztebe eta Elizondo herriak tokiko nodo nagusiak dira. Hala ere, zenbait zerbitzu eskualdetik kanpo kokatzen dira. Testuinguru horretan Irun, Iruña, Donostia edo Baiona inguruko hiriguneekiko menpekotasuna garrantzitsua da. - Motorizazio tasa 0,58koa da, Nafarroa eta Gipuzkoa baina altuagoa, eta mugikortasunaren zati oso handi bat garraio pribatuaren bidez egiten da. Baztan-Bidasoa lurralde zabala, sakabanatua eta barne-aniztasun handikoa da. Tokiko nodo nagusiek oinarritzko zerbitzuak biltzen badituzte ere, herri txiki askok irisgarritasun-zailtasunak dituzte. Gainera, nodo horien gaitasuna mugatua da, eta inguruko hiriekiko mendekotasuna aipagarria da. Horrek azaltzen du, neurri batean, motorizazio-tasa altua eta garraio pribatuarekiko mendekotasuna.
Demografia	- 2025ean Baztan-Bidasoak 21.986 biztanle zituen, eta 26,8 biztanle/km²-ko dentsitatea. - Barne-desoreka handiak: Ezkurra eta Donamaria bezalako herriek biztanleria-dentsitate oso txikiak dituzte 5-6 biztanle/km² ingurukoak, herri handiagoak berriz biztanleriaren zati handi bat zentralizatzen dute, Doneztebek 213,2 biztanle/km²-ko dentsitatea du. - Biztanleriaren egonkortasuna etorkinei esker mantendu da: Hazkunde natural negatiboa eta migrazio saldo positiboak. - Biztanleriaren zahartze-prozesua nabaria da, zahartze indizea %278,94an kokatuz. - Landa-inguruko biztanleriaren maskulinizazio prozesua: %51 gizonen %49 emakumeen artean. Eskualdeko erronka demografikoa biztanleriaren kontzentrazio prozesuak, biztanleriaren zahartzeak, hazkunde natural beherakorrak, migrazio-tasa positiboak eta maskulinizazioak baldintzatzen dute. Honek argi uzten du lan-merkatua, zaintza-sistema, kultur aniztasuna, elkarbizitza eta erreleboaren gaiak elkarbizitza erdigunea izateko beharra.
Bizitza duinerako errenta baldintzak	- Pertsonako batez besteko errenta 15.970,47€koa da, Nafarroako eta EAEko batezbestekoen azpitik. - Biztanleriaren %18,3k pobrezia-arriskua jasaten du. Nafarroakoa (%13,8) eta EAEkoa (%10,2) baina handiagoa baina Espainiar Estatuko (%20,2) baino apalagoa. Desberdintasun sozioekonomikoa ez da muturrekoa, baina errenta-maila apalagoek eta pobrezia-arriskuak erakusten dute bizitza duinerako baldintzak ez daudela guztiz bermatuta. Horrek zaurgarritasun sozial eta ekonomikoari lotutako erronkak agerian uzten ditu.



Lan-merkatua eta ehun ekonomikoa	- Langabezia-tasa %4,91koa da, Nafarroakoa eta EAEkoa baino baxuagoa. - 55 urtetik gorako emakumeen langabezia tasa da handiena, %11,4. - Lanaldi partzialeko kontratuen %76 emakumezkoenak dira. - Soldata-arrakalak nabariak dira, sexuaren arabera %21, desgaitasunaren arabera %31 eta nazionalitateari dagokiona %26. - Langileen %62k bizilekutik kanpo egiten du lan. - 2025ean 1617 enpresa zeuden 2011an baino 324 gutxiago. - Enpresen %96,1 mikroenpresak dira. - Forma juridiko zabalduena pertsona fisikoena da, %66. Kooperatibek berriz %1 besterik ez dute ordezkutzen. - Gizarte Segurantzari afiliatutako pertsonen %65, zerbitzuen sektorean kokatzen dira. Enplegu-adierazle orokorrekin egoera nahiko positiboa erakusten badute ere, barne-desberdintasun esanguratsuak ageri dira, bereziki sexuaren, adinaren, jatorriaren eta desgaitasunaren arabera. Gainera, bertan lan egiteko zailtasunak ere ikusten dira. Ehun ekonomikoa mikroenpresetan, pertsona fisikoetan eta zerbitzuen sektorean oinarritzen da. Enpresa kopuruaren jaitsierak belaunaldi-erreleboari, jardueren jarraipenari eta enpresa txikien egonkortasunari lotutako erronkak agerian uzten ditu. Aldi berean, kooperatiben pisu txikiak gizarte-ekonomiaren eta ESEaren garapenerako dagoen tarteak erakusten du. Beraz, lurraldeak badu erronka bertako ehun ekonomikoaren jarraikortasuna bermatu eta bertan lan egiteko aukera ematen duten, lanpostu duin eta ekitatiboak bermatzen.
Zaintza eta erreprodukzio soziala	- Landa-eremuko ezaugarri bereziek zaintzaren antolaketa baldintzatzen dute: zahartzea, maskulinizazioa, herrien sakabanaketa, zerbitzuen zentralizazioa eta irisgarritasun-arazoak. - Mendekotasun tasa orokorra %60koa da. Bertizaranak du tasatik handiena %80. - Zaintza-lanen %86tik gora etxeetan asetzen dira, gehienetan familietako emakumeen eskutik. - Zerbitzu eta azpiegitura batzuk badaude, baina ez dira zaintza-behar guztiak asetzera iristen, eta askotan herri handienetan zentralizatuta daude. - Zaintza lanen prekarizazioa: Etxeko langileen %17,7k astean 40 orduetik gora egiten du lan eta zaintza langileen gehiengoak lan-baldintza prekarioak eta zaintza zerbitzu on eta nahikoa emateko baliabide falta azpimarratzen dute. Zaintza familiarizatua, feminizatua, pribatizatua eta prekarizatua dago. Zahartze demografikoak eta landa-eremuaren ezaugarriek zaintza-beharrak handitzen dituzte, baina ez dago zaintza erdigunean jartzen duen sistema integral eta bateraturik. Azpiegitura publiko eta komunitario batzuk badaude, baina ez dira nahikoa, ezta lurralde osoan modu orekatuan banatuak ere. Horrek zaintza ikuspegi publiko-komunitariotik berrantolatze beharra erakusten du, zaintza bizitzaren sostengurako ardatz estrategiko gisa ulertuz.
Energia	- Nafarroako energia kontsumoa %18 igo da 2009tik 2025era. - 2024an autohornikuntza energetikoa %21,25an kokatzen da. - Energia berriztagarriek azken kontsumoaren %28 hartzen dute. Garraioaren energia kontsumoaren %6,25 hartzen duten bitartean. - Motorizazio tasa 0,58an kokatzen da.



	Energia-kontsumoaren gorakadak, autohornikuntza energetiko baxuak, garraioan energia berriztagarriek duten pisu txikiak eta motorizazio-tasa altuak erakusten dute trantsizio-energetikoa gai estrategikoa dela eskualdean. Trantsizioak energia berriztagarrien ekoizpena, kontsumoaren murrizketa, mugikortasun-ereduaren berrantolaketa eta energia tokiko gobernantza komunitarioko ikuspegitik lantzea barne bildu beharko lituzke.
Elikadura sistema eta luraren erabilera	- Lehen sektoreak Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen %5 hartzen ditu. Baztan eta Bertizaranak zifra hau %8ra iristen da, Nafarroako batezbesteko %3,5etik gora. - Lurzoruaren gehiengoa %91 baso-lurra dira, nekazaritza-lurren jaitsiera nabaria ikusten da 2007an %15 izatetik 2025ean %2,96 izatera pasaz. - Ustiategi kopurua 1320tik 1272ra igaro da 2015etik 2025era. - Ustiategi bakoitzaren nekazaritza azalera erabilgarria handitu da, 17,5 hektareatik 19,68ra 2015etik 2025era. - Ekoizpen-proiektuen %88 abeltzaintzari lotuta dago. - Ekoizpen-proiektuen %9 besterik ez da profesionala. - Eraldaketako proiektuen zati handi bat ez dago lurraldeari lotuta, nahiz eta esperientzia positiboak egon. - 22 proiektu ekologiko identifikatzen dira. - Tokiko ekoizleen- eta kontsumo-proiektuen arteko deskonexio nabaria.
	Eskualdeko elikadura-sistema lehen sektorearen pisu ekonomiko mugatuak, ekoizpen-gaitasunaren banaketa desorekatuak eta ustiategiaren kontzentrazio-prozesuaren zantziek baldintzatzen dute. Horri profesionaltasun-maila baxua, ekoizpen ekologikoaren eskala mugatua eta ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko deskonexioa gehitu behar zaizkio. Hala ere, lehen sektoreak balio estrategiko handia du lurraldearen ikuspegitik. Horrenbestez, elikadura-sistema burujabeago bat eraikitzeko ezinbestekoa da ekoizleen, kontsumo-proiektuen, eraldaketa-guneen eta erakunde publikoen arteko interkooperazioa indartzea.

Azterketa sozioekonomikoak erakusten du Baztan-Bidasoak hainbat erronka estrategiko dituela: gizartearen zahartzea, herri txiki batzuen ahultze demografikoa, ehun ekonomikoaren zaurgarritasuna, lan-merkatuan agertzen diren desorekak, zaintza-sistema integral eta publiko-komunitario baten beharra, energia-eredu burujabeago baterako trantsizioa egituratzeko premia, eta elikadura-burujabetzarako pausuak eman beharra. Jakina, erronka gehiago ere badaude lurraldean; hala ere, azterketa sozioekonomiko honen bidez eskualdearentzat bereziki sistemikoak eta estrategikoak diren zenbait gai bildu nahi izan dira.

Erronka guztiak elkarlotuta agertzen dira. Adibidez, ehun ekonomikoaren ahultzeak eragina izan dezake herri txikiaren ahultze demografikoan; era berean, hustuketa demografikoa bizi-baldintzekin, lan-

aukerarekin, zaintza-sistemaren gabeziekin edo mugikortasunaren zailtasunekin lotuta egon daiteke.

Horregatik, azterketa sozioekonomikoak ikuspegi sistemiko baten beharra azpimarratzen du: lurraldeko erronkak ez dira sektoreka eta modu bereizian soilik landu behar, bizitzaren sostengua eta lurraldearen bizigarritasuna erdigunean jarriko dituen ikuspegi bateratu batetik baizik.

Illo horretan, ESEaren papera bereziki garrantzitsua izan daiteke. ESEak ez du ekonomia hazkunde ekonomikoaren ikuspegitik ulertzen, lurraldearen behar sozialak, zaintza, tokiko ekonomia, burujabetza materialak, komunitate-logikak eta gobernantza partekatua erdigunean jarri baizik.

Hala ere, azterketa sozioekonomiko honek baditu bere mugak. Datu kuantitatiboak eta iturri dokumentalek joera nagusiak aztertzeko



aukera eman badute ere, ez dute lurraldea bizi eta eraldatzen dutenen esperientzia eta ikuspuntua barneratzen. Horregatik, hurrengo atalean landa-lanaren bidez azterketa hau osatu

eta kontrastatuko da, eskualdeko errealitatea eta bertan dauden proiektuak zein ekosistema eraldatzailea hobeto ulertu eta horrela azterketa sozioekonomiko hau osatzeko.


3.4 Landa-lanaren prozesua, helburuak eta metodologia.

Aurreko atalean garatutako azterketa sozioekonomikoak Baztan-Bidasoako egoera orokorra kokatzeko balio izan du, bereziki lurraldearen bizigarritasunarekin eta bizitza sostengatzeko eremu estrategikoekin lotuta. Hala ere, datu sozioekonomikoek ez dute beren kabuz lurraldearen errealitate osoa barneratzen. Horregatik, atal enpirikoaren bigarren urrats gisa, landa-lana garatu da, lehen mailako iturrietako informazio kualitatiboaren bidez diagnostikoa osatzeko.

Zehazki, landa-lanak lau helburu nagusi izan ditu:

Prozesua ez da modu guztiz linealean garatu, eta bost fase nagusi eraman dira aurrera:

Irudia 4: Landa-lanaren faseak



Iturria: Norberak egina.

1. Fasea: Eragile eta haien arteko saretzearen lehen hurbilketa.

Lehen fasearen helburua, eskualdeko ekosistema eraldatzaileko eragile eta haien arteko harreman edo sare-egituren lehen hurbilketa bat egitea izan da.

Lehendabizi, eragile publiko edo instituzionalak hartu dira kontuan. Kasu honetan, egitura publiko-komunitario posible baten baitan, dimentsio publiko edo instituzionaletik eragin dezaketen eragileak identifikatu dira. Horren barruan kokatu dira: eskualdeko udalak, garapen agentziak eta laneratze edo enpleguarekin lotutako zerbitzu publikoak. Bigarrenik, tokiko eragile/proiektu eraldatzaileak identifikatu dira. Kasu honetan, zailtasun nabariak aurkitu dira; alde batetik, ikerketaren mugak direla eta, ezinezkoa izan delako eskualdeko eragile eta talde guztiak barneratzea. Horregatik, taldeak, herri mugimenduak eta izaera ekonomikorik ez duten

elkartek ez dira modu sistematikoan barneratu. Bestalde, eragile askok ez dute beren buruan ESEren barruan definitzen. Horregatik, forma juridikoa ez da irizpide bakarra izan; ESErekiko hurbiltasuna, sare eraldatzaileetan parte hartzea, diskurtso sozial edo komunitarioa izatea, lurraldean errotuta egotea eta bizitza sostengatzeko eremu estrategikoekin lotura izatea hartu dira kontuan. Alde batetik, kooperatiben erregistroak eta ESrekin lotutako sareak kontsultatu dira. Bestetik, eragileen webguneak, sare sozialak eta informazio publikoa aztertu dira, haien jarduera, lurraldearekiko lotura, elkarlan-sareak eta diskurtsoa ezagutzeko. Horrela, eskualdeko eragile eta haien artean dauden sare formalen zerrenda osatu da.

2. Fasea: Elkarrizketatuen identifikazioa.

Hasierako identifikaziotik abiatuta, guztira, hamabi elkarrizketatu identifikatu dira, laginketa intenzionalaren metodoaren bidez. Ruiz



Olabuénagaren (2007) arabera, laginketa intentzionala metodo ez-probabilistiko mota bat da, non parte-hartzaileak ikertzailearen irizpideen arabera hautatzen diren. Horrela, kasu honetan elkarrizketatuak aurretik aipatutako helburuei erantzuna emateko gaitasunaren eta eskuragarritasunaren arabera

hautatu dira. Hau horrela izanik ere, lurraldea bere aniztasunean irudikatzen saiatu gara, eskualde ezberdinetako eta sektore ezberdinetako eragileak barneratuz. Horrela, ondorengo taulan eginiko 12 elkarrizketatuen zerrenda aurkeztuko da, bakoitzaren profila definitzea aldera.

Taula 9: Elkarrizketatuen identifikazio taula

Elkarrizketatuen identifikazio taula					
Mota	Data	Erakundea	Kokapena	Elkarrizketatua	Deskribapena
Eragile publiko edo instituzionalak					
	25/05/18	Berako udala	Bortziriak/Bera	Alkatea	Bera udalerriko tokiko administrazio publikoa da.
	25/05/29	Lesakako udala	Bortziriak/Lesakako	Alkatea	Lesaka udalerriko tokiko administrazio publikoa da.
	25/05/20	Baztango udala	Baztan/Elizondo	Landa garapena, tokiko ekonomia eta gazteriaren zinegotzia	Baztan bailarako udal barrutia da.
	25/06/02	Doneztebeko udala	Malerreka/ Doneztebe	Alkatea	Doneztebe udalerriko tokiko administrazio publikoa da.
	25/04/29	Cederna-Garalur	Mendialdea	Teknikariak	Nafarroako Mendialdean lan egiten duen, tokiko Ekintza Taldea da. Garapen sozial eta ekonomikoa bultzatzea, herritarren bizi-kalitatea hobetuko duten tokiko garapen-estrategiak abian jartzea, zerbitzu publiko eta pribatuen sarea sendotzea eta biztanleria landa ingurunera erakarri eta mantentzea dute helburu.
	25/05/12	Lan-Sare		Doneztebeko enplegu agentziako burua	Nafar Lansare enplegu eta lan orientazio zerbitzu publikoa da. Kasu honetan, Doneztebeko sedean hitz egingo da, inguruko lurraldean jarduten duten erakunde gisa.



Proiektu eraldatzaileak

	25/05/18	Bidazi	Bortziriak/Bera	Langilea	Irabazi asmorik gabeko elkarte asanblearioa da. Ekonomia sozialaren bitartez, Bidasoaldea biziberritzea du helburu. Elkartearen jardunaren ardatza, autokontsumo proiektua da, denda formatuan antolatua. Tokiko produktu ekologikoak salmenta kanal laburren bidez merkaturatzea du xede, bereziki ekologikoaren gaiarekiko apustua eginez.
	25/05/14	Bixtu bera	Bortziriak/Bera	Elkarteko bazkide eta errektore kontseiluko kidea	Energia berriztagarrien komunitatea, borondatezko partaidetzan oinarritutako kooperatiba da, herritarrek eta herriko eragileek osatua. Energia berriztagarriak sustatzea, autokontsumoa handitzea eta energia gaietan herritarrak hezteak du helburu.
	25/05/21	Maira	Bortziriak/ Etxalar	Kide sortailea	Lurraldean errotutako artisau-okindegia familiarra da. Ekologikoaren autua proiektuaren funts garrantzitsua izanik, ogigintza ekologikoa landu eta salmenta-bide laburren bidez merkaturatzen dute.
		Eztibeltza	Baztan	Bazkidea	Ogibidea bertan eta bertatik sortzeko egitasmo kolektiboa da. Ekonomia sozialaren printzipioetan oinarrituta, bere jardura nagusiak sagargintza ekologikoa, sagardo ekologikoaren ekoizpena, sagardotegiaren kudeaketa, eta horiekin batera Dolaretxearen kultur proiektua dira.
	25/05/27	Jauregia esnekiak	Baztan/Aniz	Kidea	Abeltzaintza eta esneki ekologikoen ekoizpenean jarduten duen familia enpresa da. Ekoizpen eta eraldaketa kate osoa dute barneratua eta salmenta kate laburren bidez saltzen dute. Abeltzaintza ekologikoa, bertako produktua, nekazaritza arduratsua eta kontsumo jasagarriaz gain, herrigintza eta herriarekin konpromisoa dituzte ardatz.



	25/05/06	Malerreka Commons Zerbitzuak		Bazkidea	Bidasoako eskualdean gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen gizarteratze eta laneratzean laguntzeko, mikrokooperatiba da. Ekonomia zuzen, solidario eta berde berri baten printzipioei jarraituz, pertsonak erdigunean jarriz.
--	----------	------------------------------	--	----------	--

Iturria: Norberak egina.

3. Elkarrizketa fasea:

Elkarrizketatuak identifikatu ondoren, eragileekin kontaktuan jarri eta ordubete inguruko elkarrizketa erdiegituratuak egin dira, 9. taulan jasotako datetan. Eragile publiko/instituzionalei 1. eranskinean jasotako elkarrizketa-gidoiaren baitan egin zaie elkarrizketa. Lekuko proiektu eraldatzaileei, berriz, 2. eranskinean jasotakoaren baitan. Nahiz eta eragile mota bakoitzari eranskin ezberdinak pasa, aipatzekoa da elkarrizketa guztiak aurretik aipatutako lau helburuak betetzeko eginak direla eta, beraz egitura komun eta konparagarri bat partekatzen dutela, lau blokeren baitan: 1) Lurraldearen irakurketa, 2) ESE eta ekosistema eraldatzailea, 3) Eragileen arteko saretze eta interkooperazioa eta 4) Etorkizuneko hausnarketa

4. Berrelikadura:

Aurretik aipatu bezala, ikerketa hau ez da guztiz modu linealean garatu. Lehen fasean, iturri dokumentalen bidez eragile eta sareen zerrenda osatu zen. Lehen mapaketa horrek elkarrizketa-fasea abiatzeko balio izan zuen, baina ez zen eragileen identifikazio itxi gisa ulertu. Elkarrizketek, hasierako mapa hori berrelikatzeko aukera eman baitute. Honek elur-bola teknikaren logikari erantzuten dio. Elur-bola bidezko laginketa laginketa ez-

probabilistikoaren teknika bat da, non hasierako parte-hartzaileek ikerketaren irizpideak betetzen dituzten beste pertsona batzuk identifikatu edo gomendatzen dituzten, eta horrela lagina pixkanaka handitzen doan. Teknika hau bereziki erabilgarria da sarbide zaila duten populazioak edo talde espezifikoak aztertzeko (Biernacki & Waldorf, 1981). Horrela, hasierako mapaketari eragile ezberdinek identifikatutako beste eragile eta sare batzuk gehitu zaizkio, informazio gehigarri horrek beste eragile zein sare batzuk identifikatzeko aukera eman duen bitartean.

5. Informazioaren sistematizazioa eta analisia:

Ondorioak ateratzeko bidean, landa-lanaren emaitza bi zatitan banatu da. Alde batetik, elkarrizketak elkarren artean konparatu eta bateratu dira, aurretik aipatutako bloke komun bakoitzeko ondorio bateratuak ateraz: 1) Lurraldearen irakurketa, 2) ESE eta ekosistema eraldatzailea, 3) Eragileen arteko saretze eta interkooperazioa eta 4) Etorkizuneko hausnarketa.

Bestetik eskualdeko ekosistema eraldatzailearen irudia osatu da, jada aipatutako eragile eta harremanen mapaketatik abiatuta, soziograma bat osatuz.





3.5 Landa-lanaren gauzatzea: Elkarrizketa fasearen emaitzak

3.5.1 Elkarrizketen emaitza bateratua

1. Lurraldearen irakurketa:

Eragile gehienek partekatzen duten kezka nagusietako bat lurraldearen bizigarritasuna da. Horren barruan kokatzen dira bertan lan egiteko aukerak, tokian kontsumitzeko aukerak, tokian bizitzeko aukerak eta abar. Horregatik, etxebizitza, zaintza, tokiko merkataritza, ekintzailtza, enplegua, mugikortasuna eta beste zenbait erronka behin eta berriz agertzen dira elkarrizketetan, elkarren artean lotutako erronka gisa. Langabezia-tasa ez da arazo nagusi gisa agertzen, baina bai lurraldean lan-aukera egokiak sortzeko eta mantentzeko zailtasuna, baita tokiko jarduera ekonomikoaren jarraipena bermatzeko beharra ere. Horren baitan ulertu behar dira industriaren, merkataritzaren eta nekazaritzaren bilakaerari buruzko kezkak. Erronkak ez baitira soilik enpleguarekin lotzen, lurraldean bertan lan egin, elikatu, erosi eta bizitzeko aukerekin baizik. Ildo honetan erreleboaren gaiak berebiziko pisua hartzen du. Izan ere, enpresa asko errentagarritasunarengatik ez ezik jarraipena emango dien pertsonarik ez dagoelako ixten dira.

Erreleboaren gaiarekin estuki lotuta, ekintzailtzaileen erronka eta autoenplegua berriz balioan jartzeko beharra ere aipatzen dira. Autonomo izatearen edo proiektu propio bat garatzearen inguruan diskurtso negatiboa zabaldu baita, lan-karga handiarekin, arrisku ekonomikoarekin edo auto-esplotazioarekin lotuta. Horren aurrean, ekintzailtza lurraldean lan egiteko, bertan errotzeko eta tokiko beharrei erantzuteko aukera gisa aldarrikatu beharra aipatzen da. Aldi berean, tokiko proiektu ezberdinek hasierako uneetan bizitako zailtasunak azpimarratzen dituzte. Ezagutza falta, burokrazia, administrazio-zamak, finantzaketa lortzeko zailtasunak eta laguntza tekniko espezializatuaren gabezia bereziki aipatuz. Zailtasun hauek bereziki adierazgarriak dira “gauzak beste modu batera” egin nahi badira, adibidez kooperatiben kudeaketari, trantsizio ekologikoari, edo finantzaketa modu

alternatiboekin lotuta.

Bestalde, negozio ereduen birpentsaketa beharra eta koordinazio falta ere aipatzen dira. Alde batetik, enpresak errentagarriak ez ezik bizitza duina bermatzeko gai izan behar baitira, eskualdearen bizigarritasuna bermatu nahi bada. Bestalde, eskualdean sei poligono industrial ditugu baina ez kudeaketa edo gestio egiturarik, honek elkarlana eta lehiakortasuna bereziki zailtzen ditu. Ildo beretik tokiko proiektuek azpiegitura konpartitu eta gestio konpartitu falta azpimarratzen dute, proiektu bat aurrera eramateko beharrezko kargak asko handituz.

Etxebizitza eta zaintza landu beharreko gai estrategiko bezala definitzen dira. Nahiz eta bi gaiak oso garrantzitsuak izan etxebizitzaren gainean bizi den presioa, prezioen igoera eta etxebizitza publikoen falta bereziki aipatzen dira.

Ingurumenari dagokionez, Baztan-Bidasoa kokapen eta baliabide aldetik lurralde “pribilegiatu” gisa agertzen da. Lurraldearen gehiengoak basoa eta mendia dira, horregatik mendiaren kudeaketak eta lehen sektoreak lotura zuzena dute lurraldearen etorkizunarekin. Gainera, zonaldearen mugako kokapenak ere badu izaera estrategikoa. Ingurumenarekin lotuta, energia ere gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den gaia da, nahiz eta oraindik ez den beti diagnostikoaren erdigunean kokatzen. Trantsizio energetikoa, kontsumoaren murrizketa eta energia-komunitateen aukera lurraldearen etorkizuneko eztabaidetan txertatzen hasten dira.

Baztan-Bidasoa lurralde plurala da, eta herrien tamaina eta gaitasunak oso ezberdinak dira. Badira zerbitzuz gehiagor hornitutako herriak, hala nola, Doneztebe, Elizondo, Bera eta Lesaka. Baina zenbait herri txikiren kasuan, bereziki Malerrekan, despopulazioa eta zerbitzuen galera inplizituki aipatzen dira. Lehen sektorearen eta industriaren kontzentrazioa ere ez da berdina eskualdean, industria bereziki Beran eta Lesakan kontzentratu da, gainera, mugako enpresa handiek ere bereziki



baldintzatu dute lan-merkatua. Bestalde, Baztanen lehen sektorea indartsuago ikuskatzen da.

Erronkei erantzuna emateko bidean, ikuspegi ekosistemikoaren eta gobernantza partekatuen beharra aipatzen dira. Lurraldeko erronkak ezin dira sektoreka eta modu isolatuan landu, bizigarritasunaren dimentsio guztiak elkarri lotuta baitaude. Era berean, sektore ezberdinek antzeko mugak dituzte: errelebo falta, koordinazio falta, baliabide teknikoaren urritasuna edo egokitzeko zailtasunak. Horregatik, eragile publiko, pribatu eta komunitarioak kontuan hartuko dituen gobernantza partekatua beharrezkoa dela azpimarratzen da. Askotan bakoitza bere aletik eta sektore konkretuetan aritu baitira, baina erronka berriei erantzuna emateko kooperazioa eta ikuspegi bateratua ezinbestekoak dira.

2. ESE eta ekosistema eraldatzailea:

Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen inguruan, eragile ezberdinen artean adostasuna dago. Badira logika komunitario, kooperatibo, ekologiko edo eraldatzaileekin lotutako esperientziak, baina ezin da esan oraindik ekosistema eraldatzaile sendo eta bateratu bat dagoenik.

Azken urteetan, ESEaren logiken inguruan kokatu daitezkeen proiektu berriak sortu dira, bereziki lehen sektorearekin eta energia-burujabetzarekin lotuta. Konkrétuki Baztango Xuria, Jauregia esnekiak, Larralde Sagardotegia eta Berako Bidazi, momentu ezberdinetan aipatzen dira, baita eskualdean sortzen ari diren energia-komunitate ezberdinak ere. Hala ere, zaila da halako proiektuak modu zabalean aurkitzea. Mugimendu kooperatibistak ez du tradizio handirik izan eskualdean, eta historikoki beste forma juridiko edo antolaketa-eredu batzuk nagusitu dira. ESEaren inguruan oraindik pedagogia eta kontzientziazio lan handia egiteko dagoela aipatzen da. Oraindik ez da kontzeptua bera ongi ulertzen, antzeko zerbait gertatzen da ekologikoaren edo autokontsumo energetikoaren inguruan. Autu horiek azaldu eta justifikatu egin behar dira.

Logika komunitario eta kooperatiboaren inguruan nolabaiteko dikotomia agertzen da.

Alde batetik, auzolana, herrigintza eta komunitatearen indarra oraindik presente daudela, eta zenbait proiektutan funtsezkoak izan direla aipatzen da. Kasu batzuetan, herritarren parte-hartzea eta inplikazioa modu oso positiboan baloratzen dira. Ildo beretik bereziki Baztanen kasuan “kontsumitzaile kontzientea” badagoela aipatzen da. Hala ere, parte-hartzea eta kontzientziazioa oraindik erronka garrantzitsuak dira. Hainbat proiektuk zailtasunak dituzte jende berria erakartzeko, profil sozial anitzetara iristeko edo hasierako inplikazioa denboran mantentzeko. Gainera, inplizituki proiektu berrien norabidearen inguruko kezka ere aipatzen da.

Beste muga garrantzitsu bat eguneroko kudeaketa da. Bereiziki, proiektuei egin zaizkien elkarrizketetan “gauzak beste modu batera” egitean sortzen diren zailtasunak aipatzen dira. Ekologikoan aritzeak, kooperatiba izateak eta abar erraztasunak beharrean batzuetan zailtasunak ekartzen dituela baitiote, lege esparruaren konplexutasuna, burokrazia, ezagutza tekniko espezializatuaren gabezia, administrazio kargak eta diru-laguntzen gabezia edo hauek kudeatzeko zailtasunak aipatuz.

Eskualdearen barne-aniztasuna ere kontuan hartu behar da. Baztanen kontzientziazio-lan handiagoak egin dira zenbait arlotan, eta horrek proiektu komunitarioen inguruko oinarri sendoagoa edo masa kritiko handiagoa eratu du. Horretan eragina izan dezakete bertako gobernantza-ereduak, herri-batzarren presentziak eta herritarren parte-hartze espazioek. Baita industriaren pisu txikiagoa eta lehen sektorearen pisu handiagoak ekarritako beharrek ere.

Eragile instituzionalen aldetik, oro har, ESEarekiko jarrera positiboa antzematen da. Lurraldeko erronkei erantzuteko eta herrigintzako hainbat espazio legitimatzeko ESEak izan dezakeen papera azpimarratuz. Energiaren eta elikaduraren gaiak pisu berezia hartzen dute. Ildo horretatik kokatzen dira haur-eskolak eta zahar-etxeak tokiko produktuekin hornitzeko proiektuak bai eta Baztanen garatzen ari den tokiko monetaren proiektua. Hala ere, ez dago argi egun eskualdean ESEko ehunik dagoen lurraldeko behar eta eskaerei



erantzuteko; adibidez, tokiko hainbat kontsumo-proiektuen katalogoek bertakoak eta ekologikoak diren produktuekin osatzeko zailtasunak ikusten dituzte.

3. Eragileen arteko saretze eta interkooperazioa:

Eragileen arteko saretzeari eta interkooperazioari dagokionez, elkarriketetan tentsio nagusi bat agertzen da. Alde batetik, eragileak ez daude guztiz isolatuta, eta elkarlanerako espazio eta egiturak badaude. Bestalde, saretzea ez dago beti modu egonkor, sistematiko eta erabilgarrian antolatuta.

Eragile instituzionalen aldetik, behin eta berriz agertzen da eskualde-mailako koordinazioaren eta elkarlanaren beharra. Ildo horretan kokatzen dira Baztan-Bidasoako Enplegu Mahaia eta Aktibazio Plana, eskualdeko udal eta eragile ezberdinak biltzeko eta gaiak ikuspegi multisektorial batetik lantzeko saiakera gisa. Era berean, zaintza-mahaiak, gogoetarako espazio partekatua edo proiektu konkretuen inguruan sortutako elkarlanak ere aipatzen dira.

Tokiko eragileei dagokienez, hainbat sare eta elkarte aipatzen dira. ESEaren edo tokiko garapen eraldatzailearen logikaren baitan, Xardango, Baztan-Bidasoako ekoizleen elkarte; Baztango Zaporeak, Baztango ekoizle eta artisau txikien kolektiboa; Arras Baztan, mahai multisektoriala; Apopilo, turismo jasagarriaren inguruko elkarte; eta EHKolektiboa, Euskal Herriko sare agroekologikoa aipatzen dira, besteak beste. Horiez gain, badaude bestelako egitura sektorial edo ekonomikoak ere, hala nola Don Miguel Musquiz enpresarien kluba edo Denok Bat merkatarien federazioa.

Sare horien esperientzia beharrezkotzat jotzen bada ere, gabeziak ere agertzen dira. Alde batetik, eguneroko lan-kargak eragile askoren parte-hartzea baldintzatzen du, eta horrek zaildu egiten du sare ezberdinetan modu aktiboan aritzea. Horri lotuta, denbora, dinamizazio-gaitasuna eta baliabideak egituratzeko zailtasuna sumatzen da. Gainera, sareak edo foroak existitzen badira ere, ez dute beti lortzen behar praktikoak eta gai konkretuak modu partekatuan lantzea. Bestalde, elkarlanaren barruan sektorekako

desberdintasunak bereziki argiak dira. Lehen sektoreko hainbat proiektu merkatariekin eta ostalariekin harreman falta nabaria sumatzen dute, eta horrek merkaturatze-guneak eta aukera ugari galtzea dakar. Ildo beretik ESEaren baitan proiektu ezberdin gehiago batu eta saretzeko beharra aipatzen da; honen adibide da REAS bezalako egituretako kide bakarra Jauregia Esnekiak izatea.

Ondorioz, Baztan-Bidasoan saretzerako eta interkooperaziorako oinarriak badaude, baina oraindik badira hutsuneak. Bi erronka nagusi ikusten dira: alde batetik, sareak eraginkorrak izan daitezen dinamizazioa, denbora eta baliabideak behar direla; eta, bestetik, lurraldeko beharrei erantzuteko ikuspegi partekatua eta gobernantza bateratuagoa eraiki behar direla.

4. Etorkizunerako hausnarketa: Lurralde sistema kooperatiboa

Etorkizuneko aukera gisa, lurralde-sistema kooperatibo baten egitura interesgarritzat jotzen dute eragile gehienek. Udalen aldetik, horrelako egitura batean bidelagun gisa parte hartzeko prestutasuna agertzen da. Tokiko eragileen aldetik, berriz, baldintza nagusi bat azpimarratzen da: egitura horrek ez luke beste foro edo bilera-espazio bat izan behar, benetan erabilgarritasun praktikoan izan beharko luke.

Zentzu horretan, lurralde-sistema kooperatibo batek aurretik aipatutako hutsune eta zailtasunei erantzuteko tresna izan beharko luke. Bereziki aipatzen dira dinamizazioa, aholkularitza tekniko, administrazio-laguntza, diru-laguntzen kudeaketa eta banaketa zein salmenta-bideak antolatze eta koordinatzeko laguntza. Era berean, proiektu berrientzako bidelagun izatea ere aukera gisa agertzen da, batez ere hasierako uneetan sortzen diren zalantza, bakardade eta ezagutza-falten aurrean.

Elkarriketetan ez da zehazten egitura horrek zein forma konkretu hartu beharko lukeen, baina bai ezin dela kanpotik datorren beste administrazio edo egitura arrotz gisa hauteman. Lurraldean bertan egotea, errealitatea ongi ezagutzea eta eragileekin konfiantzazko harremanak eraikitzea funtsezko baldintzak lirateke. Horregatik, egiturak gertukoa, malgua



eta tokian tokiko beharretara egokitua izan beharko luke.

Eragileek, oro har, parte hartzeko prestutasuna erakusten dute, baina zalantza bat ere agertzen da. Eguneroko lan-kargak dagoeneko denbora eta energia handia eskatzen dituenek, ez dago guztiz argi eragile bakoitzak zer paper izan

3.5.2 Elkarrizketen emaitzen irakurketa

Elkarrizketen emaitzen irakurketak erakusten du Baztan-Bidasoako erronka nagusia lurraldearen bizigarritasunarekin lotuta dagoela. Hau da, lurraldean bizi, lan egin, zaindu, kontsumitu, mugitu eta harreman sozioekonomikoak garatzeko baldintzak bermatzea agertzen da kezka nagusi gisa. Ildo horretan, elkarrizketetan behin eta berriz aipatzen dira lehen sektorearen eta tokiko merkataritzaren jarraipen-zailtasunak, industria eta jarduera ekonomikoaren antolaketa, belaunaldi-errelebo falta, ekintzailatza garatzeko oztupoak, etxebizitzaren presioa, mugikortasunarekiko mendekotasuna, eragileen arteko koordinazio falta eta azpiegitura partekatuen gabezia. Hala ere, elementu horiek ez dira arazo isolatu gisa ulertu behar; aitzitik, lurraldearen bizigarritasuna sostengatzeko erronka integral baten parte dira. Horregatik, elkarrizketek ikuspegi ekosistemiko baten beharra azpimarratzen dute, bizitzaren sostengurako dimentsio ezberdinak batera landu eta gobernantza-eredu partekatuagoak eraikiko dituenak.

Ekonomia Sozial eta Eraldatzaileari dagokionez, badira logika komunitario, kooperatibo, ekologiko edo eraldatzaileekin lotutako esperientziak, bereziki elikaduraren, agroekologiaren eta, berrikiago, energia-burujabetzaren inguruan. Esperientzia horiek lurraldean trantsizio ekosozialerako eta ESEren garapenerako abiapuntuak badaudela erakusten dute. Era berean, eragile publiko eta instituzionalen aldetik ere ESEarekiko interesa eta jarrera positiboa antzematen dira, batez ere lurraldeko erronkei erantzuteko eta herrigintzako hainbat espazio legitimatzeko izan dezakeen ekarpenagatik. Hala ere, oraindik ez da identifikatzen ESEaren inguruko ekosistema sendo, ikusgarri eta bateraturik. ESEaren ezagutza mugatua da, proiektuak sakabanatuta ageri dira, eta askotan sektore zehatzetan

lezakeen egitura horretan. Horregatik, lurralde-sistema kooperatiboak ez luke lan gehiago gehitu behar; aitzitik, eragileak artikulatu, koordinatu, proiektu txikiak sostengatu eta lurraldeko erronkei ikuspegi koordinatu eta praktikoa batetik erantzuteko gaitasuna izan beharko luke.

pilatzen dira. Horregatik, elkarrizketen irakurketak bi ideia nagusi uzten ditu: alde batetik, badago potentzial eraldatzailea; bestetik, potentzial hori oraindik ez dago behar bezala artikulatuta.

Eragileen arteko saretzeari eta interkooperazioari dagokionez, elkarrizketek egoera kontrajarria erakusten dute. Alde batetik, lurraldean badaude sareak, mahaia, elkarteak eta elkarlan-esperientziak; beraz, ezin da esan eragileak isolatuta daudenik. Badira nodo artikulatzaile izan daitezkeen espazioak eta badago aurretiko elkar-ezagutza bat. Bestetik, ordea, sare horiek ez dira beti modu egonkor, sistematiko eta erabilgarrian antolatuta ageri. Eguneroko lan-kargak, dinamizazio faltak, baliabide urritasunak eta sektoreen arteko deskonexioak interkooperazioa mugatzen dute. Berezi nabaria da sektore bereko eragileen artean harremanak egon badaudela, baina sektoreen arteko loturak ahulagoak direla. Horregatik, saretzea ez da soilik eragileak elkartzea; sare horiek benetan erabilgarriak izan daitezen, denbora, baliabideak, dinamizazioa eta helburu praktikoa behar dira.

Etorkizuneko aukerei dagokienez, lurralde-sistema kooperatibo edo publiko-komunitario baten aukera interesgarritzat jotzen da, betiere dagoeneko identifikatutako hutsuneei erantzuteko gai bada. Elkarrizketek erakusten dute halako egitura batek ez lukeela beste foro edo bilera-espazio bat izan behar; aitzitik, erabilgarritasun praktikoa izan beharko luke. Zentzu horretan, dinamizazioa, aholkularitza teknikoak, administrazio-laguntza, diru-laguntzen kudeaketa, salmenta- eta banaketa-bideen koordinazioa, eta proiektu berrientzako bidelaguntza bezalako funtzioak aipatzen dira. Aldi berean, egitura horrek lurraldean errotua, gertukoa eta malgua izan beharko luke,



kanpotik datorren egitura burokratiko edo arrotz gisa hauteman ez dadin, eta lurraldearentzat benetan erabilgarriak diren praktikak aurrera eramateko gaitasuna izan dezan. Horregatik, lurralde-sistema kooperatiboaren aukera ez da proposamen abstraktu gisa ulertu behar, lurraldeko proiektu, sare eta baliabideak artikulatzeko tresna posible gisa baizik.

Oro har, elkarriketen irakurketak ondorio nagusi bat uzten du: Baztan-Bidasoan trantsizio ekosozialerako eta ESEaren garapenerako oinarriak badaude, baina oinarri horiek oraindik sakabanatuta eta sektoreka zatituta ageri dira. Badira proiektu errotuak, esperientzia

komunitarioak, sareak, erakunde publiko eta instituzionalen interesa eta eremu estrategikoetan sortzen ari diren ekimenak. Hala ere, artikulazio falta, koordinazio eskasa, baliabide eta dinamizazio urritasuna, eta ESEaren ikusgarritasun mugatua dira gaur egungo ahulgune nagusiak, lurraldearen bizigarritasuna bermatzeko bidean. Beraz, erronka ez da soilik proiektu berriak sortzea, dagoeneko existitzen diren proiektuak, sareak eta baliabideak lurraldearen behar estrategikoen inguruan artikulatzea, lotzea eta sostengatzea baizik.

3.5.3 Ekosistema eraldatzailearen argazkia: Soziograma

Ekosistema eraldatzailearen argazki bat ematea konplexua izan daiteke. Horregatik, soziograma tresna erabiliko da ekosistema eraldatzaile gisa definitzen den fenomeno sozial hau ahalik eta modu argi, bisual eta sinpleenean azaltzeko.

Soziograma eragileen arteko harremanak eta loturak modu grafikoan irudikatzeko erabiltzen den tresna da. Eragile bakoitza nodo baten bidez adierazten da, eta haien arteko harremanak loturen bidez irudikatzen dira. Bereziki erabilgarria da fenomeno sozial konplexuak aztertzeko, eragileak banaka azertu beharrean, haien arteko elkarrekinak, sareak eta artikulazioak bistaratzea ahalbidetzen duelako. Horri esker, errazago identifika daitezke sarearen erdigunean dauden


eragileak, zubi-lana egiten dutenak, elkarlanguneak edota lotura ahulagoak dituzten eremuak (Gutiérrez, 1999).

Kasu honetan, soziograma diagnostiko-prozesuan zehar jasotako informazioaren bidez osatu da. Horretarako, identifikatutako eragileak tipologiaren arabera sailkatu dira, ESErekiko loturaren eta saretze-gaitasunaren arabera tamaina ezberdina ezarri zaie, eta haien arteko harremanak lotura-motaren arabera bereizi dira. Helburua ez da sarearen neurketa kuantitatibo zehatza egitea, baizik eta Baztan-Bidasoa eskualdeko ekosistema eraldatzailearen egitura orokorra eta harreman nagusiak modu sintetikoan irudikatzea.





Irudia 5: Baztan-Bidasoako ESEko ekosistemaren soziograma



- Proiektu agroekologikoak
- Energia Komunitateak
- Elikadura kontsumo proiektuak
- Ekonomia Sozialeko beste proiektu batzuk
- ◆ Udalak
- ◆ Mankomunitateak
- ◆ Garapen agentziak eta laneratze zerbitzu publikoak
- ▭ Proiektuak sartzeko gune, elkarte eta mahiak
- Eskualdean berezkoak ez diren ESEko proiektuak
- Harreman bereziki estua
- Harreman formalak
- - - Pertsonengan oinarritutako edo informalagoak diren harremanak



3.5.4 Soziogramaren irakurketa

Soziograman ikusi daitekeen bezala, Baztan-Bidasoako ekosistema eraldatzailea bereziki elikadura burujabetzarekin eta lehen sektorea edo agroekologiarekin lotuta dago. Honen zergatia definitzea zaila da, lehen sektorean nolabaiteko kontzientzia berezia hipotesi bat izan daiteke, agian lurrarekiko lotura edo beste faktore batzuk baldintzatua. Bestalde, kontuan hartu beharra da dugun informazio eta baliabideak mugatuak direla eta beraz beste hipotesi bat, eskuragarriagoak direlako gain errepresentatuak agertzen direla izan liteke. Hau horrela izanik ere, ondorio nagusietako bat egungo ekosistema eraldatzailean zatirik ikusgarriena edo trinkoena agroekologia eta elikadura burujabetzan darabiltzan eragileek osatzen dutela da. Berezi sektore honetako eragileen artean nahiko harreman trinkoa ikusten da. Bidazik nodo artikulatzaile gisa jarduten badu ere, beste sare eta egitura batzuk ere badute beraien garrantzia.

Bestalde, eragile publiko/instituzionalak Enplegu Mahaiaren eta Aktibazio planaren inguruan batzen dira, kasu honetan Malerreka Commons Zerbitzuz bezalako eragileen kokapena ere interesgarria suertatzen da, eragile publiko eta proiektuen arteko zubi bezala. Ildo beretik energia komunitateen kasuan, nahiz eta agroekologian dauden eragile

kantitatea eta lotura-maila ez izan, bakoitza bere tokiko udalekin duten harremana dela eta, hauek ere leku estrategikoa hartzen dute lurraldea eraldatzeko sistema publiko-komunitario horren baitan

Proiektu eraldatzaileen artean harremana sektoreka banatzen da, izan ere eragile publiko eta agroekologikoen harremana nahiko urria da eta dagoena bereziki Cederna Garalurren bidez gauzatzen da. Bestalde, ESEko proiektuak beraien artean ere, bakoitza beren sektoretik at, ez dute harremanik. Bide horretan eragile ezberdinak biltzen dituen mahai multisektorial bezala Arras Baztanek kokapen estrategikoa hartzen du.

Ondorioz, soziogramak ez du ekosistema eraldatzaile guztiz egituratu bat erakusten, baizik eta artikulazio-prozesuan dagoen sare bat. Oinarriak badaude: proiektu errotoak, harreman formal eta informalak, sare sektorialak, udal eta garapen-egituren interesa, eta zenbait nodo artikulatzaile. Hala ere, harreman horiek sakabanatuak dira neurri batean. Horregatik, ikuspegi multisektoriala, eragile publikoen eta proiektu eraldatzaileen arteko zubiak eta lurralde osoa barne hartuko duen estrategia partekatua oraindik indartu beharreko elementuak dira.

3.6 Atal enpirikoaren hausnarketa integrala: Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahulguneak (AMIA) Baztan-Bidasoan

Aurreko ataletako informazioa jaso, sistematizatu eta ondorioak ateratzeko AMIA matrize bat osatu da. Azterketa sozioekonomikoan zein landa-lanean ateratako informaziotik abiatuta, diagnostiko estrategiko eta bateratu bat eskaintzeko helburuarekin.

AMIA taulan jasotako elementuen jatorria identifikatzeko, kolore-kode bat erabili da. Berdez, azterketa sozioekonomikotik eratortzen diren ondorioak; urdinez, landa-lanetik eratorriak; eta beltzez, atal enpirikoaren bi zatietan agertzen diren ondorio partekatuek dira.

Taula 10: Ekonomia sozial eta eraldatzailearen AMIA

AUKERAK	MEHATXUAK
- ESEaren bidez lurraldearen bizigarritasuna lantzea, lanaren, zaintzaren, elikaduraren, energiaren eta tokiko ekonomiaren arteko loturak ikuspegi sistemiko batetik artikulatuz. - Lurralde-sistema kooperatibo edo publiko-komunitario bat garatzea, dagoeneko existitzen diren proiektuak, sareak eta baliabideak lotu eta sostengatzeko. - Proiektu eraldatzaileen arteko interkooperazioa indartzea, arazo partekatuei eta lurraldeko behar estrategikoei modu koordinatuan erantzuteko. - Dauden saretze-esperientziak eta elkar-ezagutza baliatzea harreman egonkorragoak eta erabilgarriagoak sortzeko. - ESEko eragileen eta eragile publiko-instituzionalen interesa abiapuntu hartzea, lurralde-sistema kooperatibo edo publiko-komunitario baten garapena sustatzeko. - Zaintza, energia eta elikadura eremu estrategiko gisa lantzea, ikuspegi publiko-komunitario eta kooperatibotik. - Ekintzailatza kooperatiboa, belaunaldi-erleboia eta zerbitzu partekatua sustatzea. - ESEaren pedagogia eta ikusgarritasuna lantzea, egun sakabanatuta dauden praktika eraldatzaileak izendatu eta lotzeaz gain. - Energia-komunitateen sorrera eta garapena sustatzea, trantsizio energetikoa eta energia-burujabetza lantzeko potentzial handiko espazio gisa.	- Dauden proiektu eta sareak artikulatu ezean, ekosistema eraldatzailea sakabanatuta eta sektoreka zatituta mantentzea. - Lurralde-sistema kooperatiboa foro huts bihurtzea, edo egitura burokratiko eta eragileei lan-karga gehigarria ekarriko dien espazio gisa hautematea. - Sareak pertsona edo proiektu gutxi batzuen gain erortzea, eta parte-hartzea denboran sostengaezina izatea. - Tokiko ehun ekonomikoaren ahultze-prozesua areagotzea, bereziki belaunaldi-erlebo faltaren eta jardueren jarraipen-zailtasunen ondorioz. - Lan-aukera duin eta hurbilen faltak, etxebizitzaren presioak eta zerbitzuen galerak biztanleriaren errotzea zailtzea, eta, bereziki, herri txikien despopulazioa, isolamendua eta zerbitzu-galera areagotzea. - Zaintza-beharren hazkundea egungo zaintza-eredu familiarizatu, feminizatu eta prekarizatuaren gain are gehiago pilotzea. - Energia eta elikadura bezalako eremu estrategikoetan kanpo-menpekotasuna mantentzea edo handitzea.
INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
- Lurraldean badira trantsizio ekosozialerako eta ESEaren garapenerako abiapuntuak: proiektu errotoak, esperientzia komunitarioak eta tokiko ekimen eraldatzaileak. - Elikadura eta energia bezalako eremu estrategikoetan ESEko esperientzia esanguratsuak daude. - Saretze eta elkarlan esperientziak badaude, nahiz eta oraindik ez diren guztiz egonkorak edo sistematikoak. - Badira nodo eta espazio artikulatzaile izan daitezkeen eragileak, sareak eta mahaiaik. - ESEko eragileen aldetik lurralde-sistema kooperatibo baten garapenarekiko interesa.	- Lurraldeko proiektu, sare eta baliabideak ez daude behar bezala artikulatuta eskualde-mailakoa eta multisektoriala den estrategia partekatu batean. - Eragileen arteko koordinazio falta. - ESEaren ezagutza eta ikusgarritasuna mugatua da, eta ez dago ESEaren inguruko sare bateratu eta egonkorrik. - Sareak eta elkarlan-espazioak erabilgarriak izateko dinamizazio, denbora eta baliabide falta. - Zaintza, energia eta elikadura bezalako eremu estrategikoak ez daude modu publiko-komunitario eta kooperatiboan behar beste artikulatuta. - Tokiko ehun ekonomikoa ahultze-prozesuan dago: enpresa kopuruaren jaitsiera.



- Eragile publiko eta instituzionalen aldetik ESEarekiko eta lurralde-sistema kooperatibo baten aukerarekiko interesa.
- Lurraldeak badu abiapuntu materiala: kokapen estrategikoa eta ingurumen- eta lurralde-baliabideak.
- Jarduera ekonomiko anitzak daude: industria, zerbitzuak eta lehen sektorea besteak beste.
- Enplegu adierazle zein desberdintasun sozioekonomikoen adierazleak nahiko positiboak dira, nahiz eta zaurgarritasun egoerak eta desberdintasunak egon.

- Lurraldean bertan baldintza duinetan lan egiteko zailtasunak: lan-merkatuaren barne-desberdintasunak eta biztanleriaren gehiengoa eskualdetik kanpo lan egitera baldintzatuta egotea.
- Lurraldearen sakabanaketak eta barne-desorekek estrategia bateratuak garatzea zailtzen dute.

Iturria: Norberak egina.

Lurraldeak hainbat erronka estrategiko ditu: zaintza, etxebizitza, mugikortasuna, energia, belaunaldi-erleboia, biztanleriaren sakabanaketa eta herri txikien ahultzea, lan-merkatuko desorekak, eta bertan lan eta bizi-baldintza duinak sortzeko zailtasunak. Erronka horiek guztiak lurraldearen bizigarritasunaren auziak zeharkatzen ditu. Hau da, ez dira modu isolatuan ulertu daitezkeen arazoak; lurraldean bizi, lan egin, zaindu, kontsumitu, mugitu eta proiektuak garatzeko baldintzekin lotuta daude.

Bide horretan, ESEaren ikuspegiak badu zer landu, lurraldearen garapena eta erronka konkretuak bertakoen beharrak eta bizigarritasuna erdigunean jartzen dituen ikuspegi batetik jorratzeko bidean. Aukerak anitzak dira, eta lurraldea ez da hutsetik hasten: badira logika komunitario, kooperatibo edo eraldatzaileetan dabiltzan proiektuak, bai dimentsio publikotik, bai dimentsio komunitariotik. Beraz, badago abiapuntua, esperientzia eta harremana, nahiz eta oraindik guztiz egonkorak edo bateratuak ez egon.

Hala ere, eskualdeko erronkei ikuspegi sistemiko, multisektorial eta partekatu batetik erantzuteko artikulazio falta nabaria da. Horrek ez du esan nahi erronka guztiei aldi berean eta modu berean erantzun behar zaienik; baina bai

ikuspegi bateratuago batek elkarlaguntza, koordinazioa, baliabideen erabilera partekatua eta interkooperazioa indartzeko beharra. Zentzu horretan, sektoreen arteko artikulazioa bereziki estrategikoa da, gaur egun sakabanatuta dauden proiektuak, sareak eta baliabideak lurraldeko behar nagusien zerbitzura jartzeko. Horregatik, lurralde-sistema kooperatibo edo publiko-komunitario baten aukera ez da proposamen abstraktu gisa agertzen, diagnostikoan identifikatutako hutsuneei erantzuteko tresna posible gisa baizik. Sistema horrek dauden proiektuak, sareak eta baliabideak lotu, sostengatu eta artikulatzeko balio beharko luke lurraldeko erronka estrategikoei modu bateratuagoan erantzuteko. Hala ere, bidea zabala eta korapilatsua izan daiteke, beste erronka anitzez beteak.

Ondorioz, AMIaren irakurketa estrategikoak tesi nagusi bat uzten du: Baztan-Bidasoan trantsizio ekosozialerako eta ESEaren garapenerako oinarriak badaude, baina erronka nagusia oinarri horiek artikulatzea eta praktika ukigarri eta erabilgarrien bidez martxan jartzea da, artikulazio horrek, ikuspegi multisektoriala, gobernantza publiko-komunitarioa, interkooperazioa eta lurraldearen behar konkretuetatik abiatuta izan beharko lukeelarik.

04

Ondorioak





Ikerketa honek abiapuntu argi bat izan du: egungo testuingurua krisi multidimentsional batek markatzen du, krisi ekologikoa, ekonomikoa eta soziala barneratzen dituen. Krisi horiek guztiak elkarri lotuta daude, eta, azken batean, egungo sistema hegemonikoaren eta bizitzaren sostenguaren arteko gatazka erakusten dute. Horregatik, trantsizio ekosoziala eta ekonomia bizitzaren sostengurako beharrezkoak diren dimentsioetara berriro lotzea bereziki beharrezkoa da. Trantsizio horretan, ESEak paper garrantzitsua du, ekonomia kritiko, feminista, ekologiko eta dekolonialetan oinarritutako eredu gisa. Izan ere, kapital-metaketa eta enpresa-irabazien maximizazioaren logikatik aldenduz, bizitzaren mantenua eta aberastea jartzen ditu helburu nagusitzat.

Horregatik, ikerketa honen helburua ez da Baztan-Bidasoako egoera sozioekonomikoa modu neutro edo deskriptibo batean aztertzea izan, ESEaren ikuspegitik trantsizio ekosozialerako lurralde-diagnostiko lurreratu bat egitea baizik. Hor kokatzen da lanaren ekarpen nagusia, hiru dimentsio uztartzean: eskualde-mailako azterketa sozioekonomikoa, tokiko eragileen irakurketa kualitatiboa eta ESEaren ikuspegi teoriko-politikoa. Gainera, Baztan-Bidasoa eskualdean ez da ohikoa halako diagnostiko bateratu bat aurkitzea, eta horrek lan honi lehen hurbilketa kokatu baten balioa ematen dio. Ikuspegi horrek aukera eman du ohiko azterketa sozioekonomikoetan bigarren mailan geratzen diren dimentsioak erdigunera ekartzeko. Ildo horretan, Baztan-Bidasoan hainbat erronka identifikatu dira: etxebizitza, energia, zaintza, belaunaldi-erreleboa eta lurraldean bertan lan-baldintza duinak lortzeko zailtasunak, besteak beste. Hala ere, krisi multidimentsionalaren testuinguruan kokatuz, erronka horiek ez dira arazo isolatuak; egungo eredu sozioekonomikoak bizitzaren sostengua bermatzeko dituen zailtasunen adierazpen konkretuak dira.

Horrela, ikerketaren ondorio nagusia ondorengo da: Baztan-Bidasoak trantsizio ekosoziala eta ESEaren garapena sustatzeko oinarri sendoak ditu, hala nola proiektu errotuak, sareak eta eragile publiko zein

komunitarioak. Hala ere, oinarri horiek oraindik sakabanatuta ageri dira, eta ez dute lurralde-mailako estrategia bateratu eta egituraturik osatzen. Horregatik, erronka nagusia elementu edo oinarri horiek artikulatzea da, lurraldearen beharrei erantzungo dieten tresna praktikoa, erabilgarri eta errotuen bidez. Horretarako, ikuspegi multisektoriala, gobernantza publiko-komunitarioa, interkooperazioa eta lurraldearen ezagutza zein errotzea bereziki beharrezkoak izango dira.

Beraz, esan daiteke ikerketaren helburua bete dela. Hala ere, ikerketa honek hainbat muga izan ditu. Lehenik eta behin, ikerketa hau ez da aditu-posizio batetik garatu, ikasketa-prozesu baten baitan baizik. Bigarrenik, azterketa sozioekonomikoari dagokionez, informazio eguneratu, homogeneizatu eta zehatzaren falta eta eskuragarritasun-zailtasunak nabariak izan dira; bereziki energiaren arloan. Hirugarrenik, landa-lanaren fasean ere hainbat muga agertu dira, batez ere eragileen identifikazioari dagokionez. Eskualdeko eragile askok ez dute beren burua ESEaren barruan kokatzen, eta horrek haien identifikazioa eta sailkapena zaildu ditu. Ondorioz, soziograma ez da ekosistema eraldatzailearen mapa itxi edo behin betiko gisa ulertu behar, ikerketa honen baldintzetan egindako lehen hurbilketa gisa baizik. Azkenik, denbora-mugak ere kontuan hartu behar dira. Diagnostikoa sakonagoa izan zitekeen, eta ziurrenik beharrezkoa litzateke beste zenbait elkarrizketa osagarri egitea edo diagnostikoan beste aztergai batzuk txertatzea. Hala ere, lan honen izaera eta hedadura kontuan hartuta, egindako azterketa etorkizunean osatu, kontrastatu eta sakondu beharreko abiapuntu baliagarri gisa ulertu behar da.

Aipatu bezala, ikerketa hau ikasketa-prozesu baten baitan garatu da, eta lan hau egiteak hainbat ikaskuntza ekarri ditu. Zentzu horretan, ikerketak aukera eman du Baztan-Bidasoa sakonago ezagutzeko, baita ESEaren inguruko ikuspegia zabaltzeko ere. Bereiziki aberasgarria izan da tokiko eragileekin egindako elkarrizketetan jasotako informazioa, bai ikuspegi akademikotik, bai pertsonaletik. Bestalde, ikuspegi kritikoa, informazioa bildu, egituratu eta komunikatzeko gaitasuna, eta hausnarketarako gaitasuna ere landu dira.

Irakurketa honek BDS Koopentzat ere hainbat erronka uzten ditu. Baztan-Bidasoatik hurbil kokatzen den esperientzia izanik, eta bere jarduna ESEaren sustapenarekin eta lurralde-eraldaketarekin lotuta dagoenez, BDS Koopek ekarpen interesgarria egin dezake diagnostikoan identifikatutako erronkei erantzuteko bidean. Bereziki garrantzitsua izan daiteke erakundeak dagoeneko metatua duen ezagutza baliatzea: ESEaren inguruko esperientzia, sareak eta proiektuak lotzeko gaitasuna, eta tresna praktikoak sortu eta sostengatzeko ahalmena. Horretarako, funtsezkoa izango da lurraldeko eragileen beharretatik abiatzea, gertutasuna lantzea eta ekarpena modu erabilgarri eta errotuan egitea.

Etorkizunera begira, hiru urrats proposatzen dira. Lehenik, azterketa sozioekonomikoan

gutxiago landu diren edo landu gabe geratu diren gaietan sakontzea, hala nola etxebizitza, turismoa, industria, energia edo ingurumenaren inguruko diagnostikoa. Bigarrenik, AMIAtik abiatuta lehentasunezko helburu batzuk aukeratzea eta horiei lotutako ekintza konkrituak proposatzea. Hirugarrenik, lurraldea eraldatzeko sistema baten funtzioak eta egituraketa zehaztea, eta proiektu zein sare eraldatzaileak artikulatzeko ekintza-plan bat garatzea. Azken batean, Baztan-Bidasoako trantsizio ekosoziala ezin da kanpotik ezarritako eredu baten bidez eraiki; lurraldearen ezaugarrietatik, bertako eragileen esperientzietatik eta dagoeneko existitzen diren harremanetatik abiatu beharko da.



05

Adimen artifizialaren erabilerari buruzko adierazpena



05 Adimen artifizialaren erabilerari buruzko adierazpena




Lan hau egiteko prozesuan adimen artifizialeko tresna bat erabili da, zehazki ChatGPT. Tresna hori laguntza osagarri gisa erabili da, batez ere testuaren egitura hobetzeko, atal batzuen koherentzia metodologikoa berrikusteko, ideiak antolatzeke, formulazio akademikoagoak proposatzeko, akats ortografiko eta gramatikalak berrikusteko eta sintesi-taulak osatzen laguntzeko.

Hala ere, adimen artifiziala ez da iturri akademiko edo datu-iturburu gisa erabili. Laneko datuak, interpretazio nagusiak eta


erabilitako erreferentziak egileak landu, egiaztatu eta kontrastatu ditu. Era berean, tresnak proposatutako testuak berrikusi, egokitu eta, beharrezkoa izan denean, berridatzi egin dira, lanaren helburuetara, marko teorikora, ikerketa-prozesura eta egilearen estilora egokitzeko.

Beraz, adimen artifizialaren erabilera laguntza tekniko eta idazketa-prozesuko euskarri gisa ulertu behar da, lanaren azken edukien, interpretazioen eta ondorioen erantzukizun akademikoa egilearena izanik.



06

Bibliografia





- Amnistía Internacional. (2026). *Informe anual 2025/26: La situación de los derechos humanos en el mundo*. <https://www.amnesty.org>
- Areskurrinaga Mirandona, E., Begiristain Zubillaga, M., & Malagón Zaldúa, E. (2019). *Elikadura-sistemak: Elikadura burujabetzaren eta agroekologiaren estrategia askatzaileak*. Hegoak Zabalduz, 10.
- Arri, M., Bárcena, I., & Basurko, I. (2020). Energia transizioa eta demokrazia. *Pentsamendu kritikoak: Garapenak haratagoko begiradak*, 21—24.
- Badal, M., Mendiberri, I., & Oñederra, A. (2021). *Bortzirietako elikadura sistemaren diagnosia: Tokiko ekonomia sustatzeko lurraldeko elikadura estrategia*. Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitatea.
- Baztango Udala. (d. g.). *Baztango emazteki eta gizonen berdintasunerako II. plana (2022-2026)**.
- Baztango Udala. (2022). *Baztango emazteki eta gizonen berdintasunerako I. planaren ebaluazioa**.
- Begiristain, M. (2021). Ekofeminismen txirikordak. *Jakin*, 245—246.
- Begiristain, M., Etxezarreta, E., Morandeira, J., & Kareaga, A. (2021). Mozkin asmorik ez bada, zein da asmoa? Ekintzailatza sozial kooperatiborako adierazle-sistema baten proposamena. *Ekonomiaz*, 99.
- Bortzirietako Berdintasun Zerbitzua. (d. g.). *Bortzirietako zaintza antolaketa: Zaintza-lanen diagnostikoa eta ekintzarako proposamena*.
- Cederna Garalur. (2023). *EDLP Montaña de Navarra 2023-2027: Estrategia de desarrollo local participativa de la Montaña de Navarra 2023-2027*.
- Cederna Garalur, DenokBat, & Nafarroako Gobernua. (d. g.). *Merkataritza erakartzeko eta egituratzeko plana: MAEP-PAOC Baztan-Bidasoa-Malerreka*.
- Datosmacro. (2025). *Consumo de electricidad*. <https://datosmacro.expansion.com/energia-y-medio-ambiente/electricidad-consumo>
- Dirección General de Tráfico. (2025). *Parque de vehículos-Tablas estadísticas Auxiliar 2024* [Datu-multzoa]. <https://www.dgt.es/menusecundario/dgt-en-cifras/dgt-en-cifras-resultados/dgt-en-cifras-detalle/Parque-de-vehiculos-Tablas-estadisticas-Auxiliar-2024/>
- Ecolan, & Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitatea. (2020). *Jasangarritasun arloko diagnosia: Tokiko Agenda 21*.
- Eustat. (2025). *Población estimada de la C. A. de Euskadi a 1 de enero, según territorio histórico y sexo. 1976-2025*. https://www.eustat.eus/elementos/ele0011400/poblacion-estimada-de-la-c-a-de-euskadi-a-1-de-enero-segun-territorio-historico-y-sexo/tbl0011431_c.html
- Eurostat. (2025). *At-risk-of-poverty rate remains stable in the EU*. <https://ec.europa.eu/eurostat>
- Gobierno de Navarra. (2023). *Pobreza y niveles de renta (ERPn): Tasa de riesgo de pobreza relativa*. Centro de Documentación Social de Navarra. <https://centrodocumentacionsocial.navarra.es/es/w/grafico/pobreza-y-niveles-de-renta-erpn-tasa-de-riesgo-de-pobreza-relativa>
- Grupo Banco Mundial. (2026). *Índice Gini*. <https://datos.bancomundial.org/indicador/SI.POV.GINI>
- Gutiérrez, P. M. (1999). El sociograma como instrumento que desvela la complejidad. *Empiria*, (2), 129—151. <https://ehu.idm.oclc.org/login?url=https://www.proquest.com/scholarly-journals/el-sociograma-como-instrumento-que-desvela-la/docview/1296873859/se-2>
- Herrero, Y. (2016). Economía feminista y economía ecológica: El diálogo necesario y urgente. *Revista de Economía Crítica*, 22, 144—161.



Herrero, Y. (2020). Gure metabolismo soziala eraldatu, bizitzarekiko lotura hautsiak berriro osatzeko. *Pentsamendu kritikoak: Garapenak haratagoko begiradak*, 25—30.

Instituto Nacional de Estadística. (d. g.). Censos de población y viviendas 2021. <https://www.ine.es/Censo2021/Informe.do>

Instituto Nacional de Estadística. (2025a). *Navarra: Población por municipios y sexo* [Datu-taula]. <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=2884&L=0>

Instituto Nacional de Estadística. (2025b). *Resultados por municipios, distritos y secciones censales por provincias: Navarra. Indicadores de renta media y mediana*. <https://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm>

Instituto Nacional de Estadística. (2026a). *Indicadores de renta media y mediana: Atlas de distribución de renta de los hogares (ADRH)*. INEbase. <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=53689>

Instituto Nacional de Estadística. (2026b). *Tasa de riesgo de pobreza por comunidades autónomas: Encuesta de condiciones de vida*. <https://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm?t=9963>

Intergovernmental Panel on Climate Change. (2023). *Climate change 2023: Synthesis report*. https://www.ipcc.ch/report/ar6/syr/downloads/report/IPCC_AR6_SYR_FullVolume.pdf

Malerrekako Mankomunitatea. (2024). *Malerrekako emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostiko parte-hartzailea*.

Mencías, A. (2024). *Los impactos del Polo Cooperativo*. Trantsizio Ekosozialerako Behatokia, BDSkoop. <https://behatokia.bdskoop.eus/polo-kooperatiboak/>

Nafarroako Berdintasunaren Institutua. (2020). *Radiografía de los cuidados en Navarra: Informe diagnóstico*.

Nafarroako Estatistika Institutua. (d. g.-a). *Erregistratutako langabezia: Taulak*. https://nastat.navarra.es/eu/tablas_powerbi/-/tag/paro-registrado

Nafarroako Estatistika Institutua. (d. g.-b). *Gizarte Segurantzako afiliazioaren estatistika: Taulak*. https://nastat.navarra.es/es/tablas_powerbi/-/tag/afiliacion-a-seguridad-social

Nafarroako Estatistika Institutua. (2025a). *Detalle de mapas estadísticos: Censos de población. Población extranjera, 1 de enero de 2025*. <https://nastat.navarra.es/es/detalle-mapas-estadisticos/-/tag/padrones03>

Nafarroako Estatistika Institutua. (2025b). *Directorio de empresas con actividad económica en Navarra* [Datu-multzoa]. Datos Abiertos de Navarra. <https://datosabiertos.navarra.es/es/dataset/directorio-de-empresas-con-actividad-economica-en-navarra-dena/resource/061d6974-6fb2-43a4-b870-a589ffe57ea5>

Nafarroako Estatistika Institutua. (2025c). *Indicadores municipales*. <https://nastat.navarra.es/eu/indicadores/indicadores-municipales>

Nafarroako Estatistika Institutua. (2026). *Lurzoruaren erabilerak*. Nafarroako Gobernua. https://nastat.navarra.es/es/tablas_powerbi/-/tag/usos-suelo

Nafarroako Gobernua. (2025). *Tentsiopeko merkatuaren zonaldea: Justifikazio memoria*.

Nafarroako Gobernua. (2026). *2025 censo por municipios* [Excel fitxategia]. <https://www.navarra.es/es/agricultura-y-ganaderia/ganaderia/censos-ganaderos>

Olatukoop. (2024). *Ekonomia eraldatzaileak: Ekonomia eta lurraldeak eraldatzeko proposamen bat*.



Oñederra, A., Mendiberri, I., Badal, M., & Sese, S. (2020). *Malerreka eta Bertizarana bailaretako elikadura sistemaren diagnosia: Tokiko ekonomia sustatzeko lurraldeko elikadura estrategia*. Malerrekako Mankomunitatea.

OpenAI. (2026). *ChatGPT* [Adimen artifizial sortzaileko tresna]. <https://chatgpt.com>

Pérez, A. (2014). *Subversión feminista de la economía*. Traficantes de Sueños.

Pérez, A. (2023). *Ekofeminismoak: Bizitzari eustea eta gorputza-lurra lurraldea zaintzea*. Hegoa.

Prats, F., Herrero, Y., & Torrego, A. (2017). *La gran encrucijada: Sobre la crisis ecosocial y el cambio de ciclo histórico* (2. arg.). Libros en Acción.

Ruiz Olabuénaga, J. I. (2007). *Metodología de la investigación cualitativa*. Universidad de Deusto.

Santos de Oliveira, A. (2024). *Economía circular en el sector agroalimentario en el Bajo Bidasoa* [Argitaratu gabeko master amaierako lana]. Euskal Herriko Unibertsitatea; BDS Koop Eraldaketa Fabrika.


Streeck, W. (2016). *How will capitalism end? Essays on a failing system*. Verso.

Ttipi-Ttapa. (2025). *Benito Mennin lan-baldintza duinak nahi dituzte*. Erran.eus. <https://erran.eus/baztan/1759491022825-benito-mennin-lan-baldintza-duinak-nahi-dituzte>

United Nations Environment Programme. (2026). *Food loss and waste*. <https://www.unep.org/topics/food-systems/food-loss-and-waste>

07

Eranskinak





1. Eranskina: Eragile instituzionalen elkarrizketa-gidoia

Eragile instituzionalen elkarrizketa-gidoia	
Elkarrizketa mota	Erdi-egituratua
Era mota	Eskualdeko udalak, garapen agentziak eta laneratze edo enpleguarekin lotutako zerbitzu publikoak.
Iraupena	60 minutu inguru.
1.Lurraldearen diagnostikoa	
- Nola deskribatuko zenukete gaur egun lurraldeko egoera sozial, ekonomiko eta ekologikoa? Zeintzuk dira erronka nagusiak? - Zeintzuk dira lurraldearen indarguneak? Eta zeintzuk ahulguneak? - Herri edo azpieskualdeen artean aldeak ikusten dira?	
2.Lan-ildo eta ekimenak	
- Zeintzuk dira garatzen ari zareten lan-ildo nagusiak? - Zein oztopo nagusi aurkitu dira proiektu horiek garatzeko orduan? - Nolako harrera izan dute ekimen horiek herritarren eta eragile ezberdinen artean?	
3.Lankidetzatza, interkooperazioa eta Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea	
- Zer presentzia du Ekonomia Sozial eta Eraldatzaileak lurraldean? Badago ekosistema bateraturik? - Badira logika kooperatibo, komunitario, ekologiko edo eraldatzailearekin lan egiten duten proiektuak? - Zer harreman duzue lurraldeko eragileekin? Badago elkarlanik?	
4.Etorkizuneko hausnarketak	
- Nola ikusten duzue Baztan-Bidasoan eragileak sartzeko eta proiektu txikiak indartzeko lurralde-sistema kooperatibo edo polo kooperatibo moduko tresna bat? - Zer funtzio bete beharko lituzke benetan erabilgarria izateko? - Horrelako egitura batean, nola ikusiko zenukete zuen erakundearen papera?	



2. Eranskina: Eragile/proiektu eraldatzaileen elkarrizketa-gidoia

Eragile/proiektu eraldatzaileen elkarrizketa-gidoia	
Elkarrizketa mota	Erdi-egituratua
Era mota	Eragile/proiektu eraldatzaileak
Iraupena	60 minutu inguru.
1.Proiektua ezagutzen	
- Nondik sortu zen proiektu hau? Zein behar edo kezkatik abiatuta? - Zeintzuk dira gaur egun lan-ildo nagusiak? - Nola azalduko zenuke proiektuak lurraldean duen eginkizuna?	
2.Lurraldearen diagnostikoa	
- Zuen esperientziatik abiatuta, nola ikusten duzue gaur egun Baztan-Bidasoako egoera soziala, ekonomikoa eta ekologikoa? - Zuen jarduerarekin lotutako sektorean, zein dira erronka nagusiak? - Zein dira proiektua aurrera eramateko zailtasun nagusiak?	
3.Lankideta, interkooperazioa eta Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea	
- Zer presentzia du Ekonomia Sozial eta Eraldatzaileak lurraldean? Badago ekosistema bateraturik? - Badira logika kooperatibo, komunitario, ekologiko edo eraldatzailearekin lan egiten duten proiektuak? - Tokiko produktuek, zerbitzu eraldatzaileek edo proiektu alternatiboek nolako harrera dute herritarren artean? - Zer harreman duzue lurraldeko beste eragileekin?	
4.Etorkizuneko hausnarketak	
- Nola ikusten duzue Baztan-Bidasoan eragileak saretzeko eta proiektu txikiak indartzeko lurralde-sistema kooperatibo edo polo kooperatibo moduko tresna bat? - Zer funtzio bete beharko lituzke benetan erabilgarria izateko? - Horrelako egitura batean, nola ikusiko zenukete zuen erakundearen papera?	